



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa  
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - [www.donostia.org](http://www.donostia.org)  
20003 Donostia-San Sebastián

# **DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN OROITIDAZKIA**

**2011**

## AURKIBIDEA

1º. Sarrera .....	2
2º. Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren epaitzen berri zabaltzea.....	3
3º. Alde pertsonalak eta lan karga .....	52
4º. Alde materialak eta informatikoak .....	54
5º. Aurkeztutako erreklamazioak .....	54
6º. Ebatzitako erreklamazioak.....	56
7º. Ebazteke diren erreklamazioak .....	58
8º. Epaitzak zein aldetarantz eman diren .....	59
9º. Auzitegiaren irizpideak .....	62
10º. Aurkeztutako gatazkei buruzko iruzkinak .....	63
11º. Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak konparatuz eginiko azterketa.....	65
12º. Eskatutako irizpenak .....	67
13º. Ondorioak.....	68

## 1º. SARRERA

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboa errekurtsogileen eskubideak era eraginkorren babesteko printzipioaren adierazpena da, baina modu independentean funtzionatzen du. Hala dago jasota bi dokumentutan: 57/2003 Legeko (2003ko abenduaren 16koa, Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurri buruzkoa) zioen azalpenean eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboaren Ebazteko Araudian.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak urtero aurkezten die memoria Udalbatzako kide guztiei. Memoria horretan aurreko ekitaldian egindako jardueren berri ematen da.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jarduerak biltzen dituen memoria Udalean aurkeztuko da, eta 2011. urtean egindako lanaren erregistroa jaso du.

2011ko abenduaren 31n idatzitako memorian 2011. urtean egindako lanari buruzko informazioa jaso da. Halaber, lana 2005eko ekainean abiarazi zenetik hainbat alderdik izan duten bilakaera alderatzeko grafikoak ere sartu dira, hala nola: 2005etik hona egin diren erreklamazioek, emandako epaitzek dakarten erabakiak, eta erreklamazioak izapidetzeak eta ebazpenak egiteak dakarren lan-karga.

2011n aipatutako jarduera hobetzen jarraitu dugu. Izan ere, jarduera hori da auzitegiaren oinarritzeko xede eta eginkizuna. Jasotako grafikoetan ikus daitekeenez, 2011n bilakaera positiboa izan da; izan ere, eta gero ikusiko dugun bezala, erreklamazio asko ebatzi dira. Hala erakusten dute *Análisis de*

*litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales* txosteneko datuek. Txosten hori Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek aurkeztu zuen, eta aipatutako datuak sartu dira, Donostiako Udalak haien berri izan dezan.

Auzitegiak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Donostiako Udaleko Araudiak xedatutakoari jarraituz, bere dituen eginkizunak gauzatzeko egin duen lana aztertu da. Funtsean, honako hauek oinarri dituzten erreklamazioak ezagutzeari eta ebazteari jarri zaio arreta batez ere: kudeaketako egintzak, likidaziokoak, zerga-bilketakoak eta zerga-ikuskaritzakoak; baita udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko sarreraren nahitaezko zerga-bilketakoak (bereziki Udal zehapenak jartzen dira, halakoetan) eta zerga-ordenantzen Proiektuari buruzko txostenekoak.

## **2º. DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN EPAITZEN BERRI ZABALTZEA**

Zergen arloko berraztertze errekurtsoak ezesteko eman diren epaitzei dagokienez, zerga mota bakoitzean eman diren epaitzen berri eman da. Epaitzak, duten espezifikotasunaren arabera aukeratu dira.

Orobat, eta interesdunek jakin dezaten, auzitegiaren epaitzek dakarten erabakia udalaren webgunean zabaltzeko asmoa dago. Erabaki horiek doktrina izango dira, gero.

### **Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.**

- **393-2011 epaitza**, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioan % 50eko hobaria (261,39 €) aitortzeko eskaera ezeztearen aurka jarritako erreklamazioa **ezezten duena**.

Alegazioa,

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren % 50eko hobaria eskatu du, babes ofizialeko etxebizitza delako, 39/2008 Dekretuak xedatzen duenez. Likidazioa berraztertzea eta hobaria aplikatzea eskatu du.

Azalpena,

Udalak XXXXren izenean dagoen XXX finkari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioa (XX) gauzatu zuen. 2010eko XXXXX(a)ren XXXXX(e)an likidazioa ordaindu zen. 2011ko urtarrilaren 7an, interesdunak idazki bat aurkeztu zuen zergaren % 50eko hobaria aitortzea eskatzeko. 2011ko martxoaren 7an, eskaera ezetsi egin zen.

XXX herrian dagoen etxebizitza babes publikoko etxebizitza berria den edo ez zehazteko, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriari buruzko 39/2008 Dekretuaren 2. artikulura jo da: *“Babes publikoko etxebizitzak izango dira araubide bereziko, orokorreko eta tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak, eta orobat Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 8. xedapen gehigarrian aipatzen diren araubide bereziko eta orokorreko udal etxebizitza tasatuak”*. 2/2006 Legearen 8. xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du: *“Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira babes publikoko etxebizitzatzat: babes ofizialeko etxebizitzak, udal-etxebizitza tasatuak...Babes ofizialeko etxebizitzaren alorreko legeria propioa edo horren erregelamenduak onartzen ez diren bitartean, araubide tasatuko babes ofizialeko etxebizitzaren definizioa, ezaugarria eta oro har araubide juridikoa araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren dituztenak izango dira”*.

*Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira udal etxebizitza tasatutzat: Euskal Herriko udalek ezartzen dituztenak, dagokion udal ordenantzaren bidez erabakita, eta ordenantza horretan beren babes publikoko araubidea erregulatuta.*

Udalak 2007ko urtarrilaren 30ean onartu zuen udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak izaera hori onartu zion finka horri, 2011ko martxoaren 11n jaulkitako txosten bidez. Hortaz, finka hau babes publikoko etxebizitzatzat jo behar da, zerga honen ondorioetarako.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren araudi erregulatzailerak aztertu da, eta uztailearen 5eko 12/1989 Foru Arauaren 15.c) artikulua aurreikusten du udalek eskaera bidezko hobari hori zerga-ordenantza sartu eta erregulatzeko ahalmena dutela: *udalek ahalmena dute eraikuntza berriko babes publikoko etxebizitzaren zein horiei proiektuan eta erregistro eskrituran esleituriko garaje eta trastelekuen gaineko zergaren kuota osoaren % 50era arteko hobaria erregulatzeko, behin betiko kalifikazioa eman zaienetik.*

Udal honek hobari hori aplikatzea erabaki zuen, eta hobari hori Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zerga-ordenantza sartu eta erregulatu zuen. Hobaria onartzeko legezko baldintzak eta zein datatik aurrera aplikatu behar den finkatu zuen. 11.2 artikulua) *Hobariak izapidetzea. Udal honek ematen dituen hobariak eskabidea egin eta hurrengo zergaldian izango dituzte ondorioak.*

Zerga hobariak eskatzeko epea eta hobariak baliatzeko gehienezko epeak araututa daude, eta bi baldintza horiek bete beharko dira hobaria ematea onartzeko. Zerga horren kudeaketaren zenbait alderdi garatzen dituen 6/1990 Foru Dekretuak hobariak eskatzeko epea ezartzen du, baita onarpen hori indarrean jartzen den aldi hori bera ere, 7.1.b) artikuluan: *babes ofizialeko etxebizitzak direnean, obra lanak amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasirik 2 hilabetetako epean aurkeztu beharko dira.* 7.3. artikulua: *izaten diren salbuespen eta hobariak eskaera egin eta hurrengo zergaldian jarriko dira indarrean.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak Auzitegiko Idazkaritzari jakinarazi zionez, finka honen obra-bukaerako ziurtagiria 2008ko abuztuaren 7koa da. Era berean, jakinarazi zion interesdunari 2009ko martxoaren 12an eman zitzaioala alta, eta 2010. urtean egin zitzaioala Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren lehenengo likidazioa. Erreklamazio honen espedientea osatzen duten dokumentuetan egiazta daiteke hobari hori onartzeko lehen eskaera 2011ko urtarrilaren 7an aurkeztu zela. Horrela, eta arestian aipatutako Foru Arauaren artikuluei, Foru Dekretuari eta zerga-ordenantza xedatutakoari jarraiki, hobaria 2012. urtean izango da aplikagarria. Kasu honetan ematen diren baldintza bereziak aztertu dira, eta egiaztatuta da finkek hobari hori jaso dezakeela, eta hobaria onartzeko eskaera 2011ko urtarrilaren 7an egin zela. Hori guztia eta arestian aipatutako araudia kontuan hartuta, ondorioztatuta da finka horri dagozkion hobariak onartzeko epeak gainditu direla, eta hortaz, udalaren ezespina zuzenbideari egokitzen zaiola, nahiz eta auzitegi honek ematen dituen arrazoiek ez duten bat egiten udalaren ezespenean ematen direnekin.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

- **730-2011 epaitza**, 2002tik Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoriozko 243,87 €-ko sarrera itzultzeko eskaera ezeztearen aurka jarritako erreklamazioa **ezezten duena**.

Alegazioa,

Ez dago zergaren mende dagoen trastelekurik. Behar baino gehiago ordaindu da, existitzen ez den ondare bati aplikatu zaiolako zerga. Araudiak ezin du existitzen ez den ondare batengatik ordaintzera derrigortu. Interesdunak kopuru hori ordaindu zuen, eta katastroan akats hori zuzendu eta gero, kontzeptu horrengatik ordaindutako zenbatekoa itzultzea eskatu du.

Azalpena,

2011ko Ondare Higiezinaren Zergaren gaineko ordainagiria berraztertze errekurtsoa jarri zen. 2011ko apirilaren 15ean, Foru Aldundiak errekurtso hori baietsi egin zuen, eta ondorioz, estaldura azpiari baja eman zitzaion eta garajearen kategoria aldatu egin zen, garajetik erdisotora. 2011ko maiatzaren 18an, Ondare Higiezinaren Zergaren ondorioz 2002tik ordaindutako sarrerak itzultzea eskatu zion interesdunak Udalari, finkaren katastroaren berrikusketan oinarrituta. 2011ko ekainaren 28an, Udalak eskaera ezetsi egin zuen, berraztertze errekurtsotzat jo zuelako.

Okerreko sarrerak itzultzeko prozedura egintzak administrazio bidetik berrikusteari buruzko 41/2006 Foru Dekretuaren 25. artikuluan araututa dago. *Okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea onartu ahal izango da: c) erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenen indarrez, zein ebazpen judizial irmoen indarrez.* Interesdunak aurkeztutako alegazioak ez datoz bat okerreko sarrerak itzultzeko prozedura arautzen duen Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren 228. artikulua jasotzen dituen arrazoi tasatuekin: .....

Kasu honetan, aldizkako ordainagiriak dira, irmoak eta onartuak (Zergen Foru Arau Orokorraren 230. artikulua); horietako batzuk 2008tik dute ahitua itzultzeko aukera (Zergen Foru Arau Orokorraren 66. artikulua), urte bakoitzeko ekainean eta uztailean ordaindu zirelako. Interesdunak azken ordainagiri horiek berraztertzea eskatu zuen, baina eskaera ezetsia izan zen.

Likidazioak irmoak direnez, arestian transkribatutako Zergen Foru Arau Orokorraren 228.3. artikulua xedatutakoa aplikagarria dela iritzi da.

Sarrerak itzultzeko beharrezkoak diren prozedurak, 223.a,c,d artikuluan zehazten direnak, berraztertze eskatu du interesdunak, baina eskaera horrek ez du aurrera egin Udalaren aurrean; izan ere, Udalak interesdunaren eskaera ezetsi egin du, ez du inolako egintzarik baliogabetu, ez du egintza nulurik berraztertu, eta ez du izatezko akatsik zuzendu (erreklamazio hau zuzenbideko akatsen ondoriozko kasua denez). Hortaz, alegazioak ezetsi egin behar dira, ezin delako alde batera utzi likidazioen irmotasuna, eta ez lireratekeelako beteko

likidazio horiei aurka egiteko epeak eta moduak, Zergen Foru Arau Orokorrean eta 41/2006 Foru Dekretuan jasota daudenak.

Jurisprudentziak azaldutako irizpena jasotzen eta babesten du, Auzitegi Nagusiak 2002-03-27an emandako ebazpenean, adibidez: *Okerreko sarrerak itzultzeko prozedura bidez ezin da lortu likidazioei aurka egiteak eragiten duena....ezin da 1163/1990 Errege Dekretuaren 7. artikulua erabili Zergen Lege Orokorrean 155. artikuluan ezarrita dagoen itzultzeko eskubidea indargabetzeko. Artikulu horrek ebazten duenez, ez dira itzuliko Legeak ezartzen duena edota 153, 154 eta 171. artikuluetan jasotzen dena betetzen ez duten egintza irmoak betetzeagatik sarrerak, zuzenbide osoko egintza nuluen kasuan ez ezik. Likidazioaren irmotasunak (eztabaidaezina dena, eta eztabaidatzen ez dena) hari dagokion zenbatekoa itzultzeko nahiaz baliatzerakoan, okerreko sarrerak zirela argudiatuz, lehen aipatutako jurisprudentziako doktrina aplikatzera derrigortzen du...Adierazitako lehenengo doktrinak, 1996-01-19koa gogora ekartzen duena, honako hau ebazten du: zergadunak zerga likidazio bat era formalean onartu badu, horri aurka egiteko eskubideaz baliatu gabe, bidegabea da, gero, okerreko sarrera zela argudiatuz, ordaindutakoa itzultzea eskatzea, zerga egintza hori irmoa delako.*

Horrela ebatzi zuen Konstituzio Auzitegiak 1989ko otsailaren 20ko ebazpenean, eta baita Auzitegi Nagusiak ere hainbat ebazpenetan, adibidez, 1996-01-19koan, 1997-02-21koan, 1997-11-22koan eta 1998-02-19koan; *likidazio bat legez jakinarazi denean, eta dagozkion epeak gainditzen direnean, likidazio hori irmoa eta behin betikoa izango da, eta izatezko akatsak daudenean soilik zuzendu ahal izango ditu harreman juridiko-tributarioan parte hartzen duen subjektuak, ezarritako egintza irmoak berrikusteko arrazoi Tasatuak dituzten berariazko prozeduren bidez... Zergadunak zerga likidazio bat era formalean onartzen badu, horri aurka egiteko eskubideaz baliatu gabe, bidegabea da, gero, sarrera desegokia dela argudiatuz, ordaindutakoa itzultzea eskatzea, zerga egintza hori irmoa delako.*

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei eta jurisprudentziari jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

### **Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko zerga.**

- **188-2011 epaitza**, 5.073,11 €-ko eta 68,80€-ko likidazioa berraztertzeke errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.



Alegazioa,

Kalkulu akatsa egon da likidazioan. Lehenik, alboko fatxada konpontzeko lizentzia eskatu zen, eta ondoren, sotoaren eta etxearen zimenduak sendotzeko proiektua aurkeztu zen. Proiektu horretan akats bat dago, izan ere, alboko fatxadari dagozkion 40.200 €-ak barne hartzen ditu. Obra bakoitzak aurrekontu independentea zuen: 40.220 €, 33.711,85 € eta 25.187,36 €. Likidazioa ezestea eskatu du, eta likidazio hori aurkeztutako alegazioekin (fatxadari dagozkion 40.200 €-ak kentzea) bat datorren beste batengatik ordeztea.

Azalpena,

Udalak finkaren alboko fatxada eta egitura-elementuak konpontzeko, sotoa saneatzeko eta zimenduak sendotzeko obra-lizentzia eman zuen. Udalak 5.073,11 €-ko likidazioa egin zuen. Horietatik, 4.954,96 € Eraikinen gaineko Zergari zegozkion, eta 118,15 € Hirigintzako Tasari.

Egiaztatu da 4.954,96 €-ko likidazioa kalkulatzeko 99.099,21 €-ko aurrekontua kontuan hartu zela, eta 27.520 €-koa, 68,80 €-ko likidazioa kalkulatzeko. Txostena eskatu zitzaion Arkitekto Teknikoen unitate-buruari, zeinak honako hau ondorioztatu zuen 2011ko otsailaren 12an jaulkitako txostenean: *bi espedienteak aztertu eta gero, honako hau ondorioztatu behar da: Fatxadako obrak jasotzen dituen espedientetik 99.099,21 €-ko aurrekontuari dagozkion 40.200 €-ak kendu behar dira, obra horiek ez daudelako txosten teknikoan jasota, eta ondorioz, ez daudelako emandako obra-lizentzian jasota. Beste espedienteetan 12.680 € gehitu behar dira ( 27.520 € + 12.680 € = 40.200 €) fatxada konpontzeko egin beharreko lanen zenbatekoa 40.200 €-ra igo delako, enpresak egindako aurrekontu eta sailen arabera.*

Horrenbestez, bi likidazioak zuzendu dira, likidazioan gertatutako aldaketa horiek ondorioak dituztelako likidazioei dagozkien zergak aplikatzerakoan. Zerga-ordenantzako Eranskinean obra mota bakoitzari dagokion ezarpen tasa araututa dago. Horren arabera, alboko fatxada konpontzeko lanei % 0,25eko ezarpen tasa aplikatu behar zaie, eta egiturako lanei, sotoa saneatzekoei eta zimenduak sendotzekoei % 5ekoa. Horrela, ezarritako likidazioa deuseztatzea eta beste batzuentatik ordeztea proposatu da. Likidazio berri horietan, alboko fatxada konpontzeko 40.000 €-ko zenbatekoari % 0,25eko ezarpen tasa aplikatuko zaio, eta gainontzekoari, 33.711,85 € gehi 25.187,36 €, % 5ekoa.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa baietsi egin behar da, Eraikinen gaineko Zergari dagokion 4.954,96 €-ko likidazioa ebazpen honetako laugarren puntuarekin bat datorren beste batengatik ordeztea eskatzen duena, hain zuzen ere.

- **576-2011 epaitza**, Eraikinen gaineko Zergaren 1.396,97 €-ko likidazioa berraztertzeko errekurtsioa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Antzekoak diren beste lanetan askoz ere gutxiago ordaindu behar izan dute, eta kasu honetan bi kontzeptu kobratu zaizkie. Likidazioa berraztertzea eskatu dute.

Azalpena,

2010eko uztailaren 13an, jabekideek baimena eskatu zioten Udalari, hitzez hitz jasotzen diren lan hauek egiteko: *kaltetutako jardinera komunak konpondu, fatxadak hidrofugatu eta kaltetutako fatxadako teilatu-hegalak margotu, etxebizitzetako hezetasunak kentzeko*. 2010eko uztailaren 13an, Udalak obra egiteko baimena eman zuen. Eraikinen gaineko Zergaren likidazioa egiteko, interesdunek aurkeztutako aurrekontua eta 1.396,97 €-ko zenbatekoari aplikatu beharreko % 5eko ezarpen tasa kontuan hartu zituen Udalak. Zenbateko horrek barne hartzen du 118,15 €-ko tasa. 2010eko azaroaren 24an, jabekideek berraztertzeko errekurtsua jarri zuten. 2011ko apirilaren 20an, aurkeztutako errekurtsua ezetsi egin zen.

Eraikinen gaineko Zergaren likidazioa egiteko, interesdunek aurkeztutako aurrekontua eta % 5eko zerga-kuota kontuan hartu ditu Udalak.

Berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zutenean, Eusko Jaurlaritzak haiek egin beharreko obra birgaitze-obratzat jo zuela alegatu zuten jabekideek.

Interesdunei alegatutakoa egiaztatzea eskatu eta gero, Auzitegiko Idazkaritzak egiaztatu du finkak hamar urte baino gehiagoko antzinatasuna duela. Uztailaren 11n, Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria gaineratu zen.

Eraikinen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzako Eranskinen ezartzen denez, hobaria emango zaie, kuotaren % 95, hamar urte baino gehiagoko antzinatasuna duten eraikuntzetako fatxadak birgaitzeko, garbitzeko eta edertzeko egiten diren obrei; gainontzeko birgaitze-obretarako % 2,5eko ezarpen tasa onartzen da. Hori guztia kontuan hartuta, likidazioa deuseztatzea eta beste batengatik ordeztea erabaki da. Izan ere, hirigintzako espedientean obraren aurrekontuaren kopia bat jasotzen da, eta obra hori guztia fatxadari dagokio.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa baietsi egin behar da, likidazioa deuseztatu, eta zergaren kuotan % 95eko hobaria izango duen beste batengatik ordezkatu.

- **701-2011 epaitza**, 33.826,30 €-ko likidazioan Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga eta udal zergak ordaintzetik salbustea ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

XXXX hainbat udalek osatzen dute, horien artean, Donostiako Udalak, zeinaren eskubideak eta betebeharrak erakundearen Estatutuetan jasota dauden. XXX-ren instalazioak Partzuergoaren jabetzakoak dira, baina XXX Donostian kokatuta

dago, eta hori onuragarria da Donostiako biztanleentzat. Partzuergoko kideak derrigortuta daude gastuetan parte hartzera, adibidez, eraikinak eta instalazioak eskuratzeko eta muntatzeko gastuetan, eta horiek behar bezala funtziona dezaten egin beharreko guztietan. Partzuergoko kideek inongo kargurik gabe eman behar dituzte lurzoruak. Hori kontuan hartzen bada, bidezkoa da gehien ematen duenak gutxien ordaindu behar izatea, eta ondorioz, Donostiako udalerrian Garbigunea eraikitzeagatik zergak eta tasak ordaintzetik salbuestea. Partzuergoko kide izateagatik, 33.826,30 € ordaintzetik salbuetsi behar du Udalak, eta likidazio hori baliogabetzea eskatu du.

Azalpena,

Udalak Garbigunea eraikitzeako lizentzia eman zuen, eta bere izenean Eraikinen eta Lanen gaineko Zergari, eta lizentzia eta kartografiaren gaineko tasari dagokion likidazioa egin zuen. 2011ko martxoaren 15ean, berraztertze errekurtsoa jarri zen likidazio horren aurka. 2011ko apirilaren 19an, aurkeztutako errekurtsoa ezetsi egin zen. 2008ko urriaren 23an, salbuesitako jarduerarako lizentzia eta obra txikia egiteko baimena ematea eskatu zitzaion Donostiako Udalari. Udala finkaren jabe zela adierazi zen, eta obraren aurrekontua 646.965,98 €-koa zela.

Eraikinen eta Lanen gaineko Zergari dagokion karga ezartzeko, zerga hori arautzen duten 15/1989 Foru Araua eta zerga-ordenantza aplikatu dira. Tasak ezartzeko, berriz, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Araua, Hirigintzako Tasak arautzen dituen zerga-ordenantza, eta udal zerbitzuak eta jarduerak emateagatik Tasak arautzen dituen zerga-ordenantza. Zerga-ordenantzako 2. artikulua honakoa dio zergapeko egitateari buruz : *Dagokion hirigintza-lizentzia lortzea eskatzen deneko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da zerga honen egitate zergagarria, lizentzia lortu bada zein ez bada, baldin eta hori ematea Donostiako Udalari badagokio.* Horrenbestez, eta legezko xedapenei jarraituz, obra hau zerga-karga horren mende dago legez.

Aipatutako 15/1989 Foru Arauak xedatutakoari jarraiki, zerga horretan zergadunaren subjektu pasibo ordezkoren izaera araututa dago: *Zergadunaren subjektu pasibo ordezkoren izaera dute lizentziak eskatu edo eraikinak, instalazioak edo lanak burutzen dituztenak, zergadunak berak ez balira.*

Eragin horietarako, egiaztatu da obra-lizentzia XXXX-k eskatu zuela. Horrenbestez, eta legeak ordezkotzat jotzen duelako, XXX izango da ordaintzeko obligatioduna.

Ordaintzetik salbuesteko eskaerari dagokionez, salbuespen hori 15/1989 Foru Arauak eta zerga-ordenantzak arautzen dute. Zerga-ordenantzako 6. artikuluan honako salbuespen hauek jasotzen dira:

*Ez du zerga honenik ordaindu beharrik izango, nahiz eta edozein eraikuntza, obra eta instalazio egin, obraren jabea erakunde hauetakoren bat bada: Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatua edo Toki Erakundeak, betiere, zerga honena ordaintzea egokitu arren, bideak, trenbideak,*

*portuak, aireportuak, obra hidraulikoak edo saneamendua egiteko badira, nahiz eta horien gestioa erakunde beregain batek egin eta inbertsio edo artapen lanak izan.*

*Garbigunea jartzeko obrari dagokionez, obra-kategoria hori ez da aipatutako artikuluan jasotzen. Hortaz, ez da obra-kategoria hori onartuko..*

Zerga hori ez ordaintzeko alegazioetan XXX-ren Estatutuak aipatu izanari dagokionez, 15/1989 Foru Arauak eta zerga-ordenantzak ezartzen dutenari jarraitu behar zaie, horiek ematen dituzten xedapenek beste edozein erregelamenduk eman ditzakeenak baino lege maila handiagoa dutelako, eta horiek direlako, hain zuzen ere, Donostian zerga hori arautzen duten baldintzak ezartzen dituztenak. Horrela, ezin da aplikatu arau hori aldatu edo horri aurka egingo dion xedapenik. Eragin horietarako, egiaztatu da Estatutu horietan ez dela jasotzen baldintza horri buruzko aipamenik.

Halaber, egiaztatu da Donostiako Udalak jabari publikoa era pribatiboan erabiltzeko administrazio-emakida eman ziola XXX-ri, 2009ko urtarrilaren 9an, Garbigunea Garberako UI90004, AL.20 katastroko lursailean jartzeko, hau da, zerga honekin kargatuta dauden lursailetan.

Horrenbestez, Udalak administrazio-emakida esleitzerakoan hura arautzen duten baldintzetan zergak ordaintzeari buruzko xedapen juridikoren bat ezarri zen aztertu da. Eta emakida emateko onartutako udal akordioan, non esleipenerako baldintzak jaso ziren, egiaztatu da ez dagoela horri buruzko xedapenik, eta hortaz, bere horretan geratzen da zerga ordaintzeko betebeharrak orokorra.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da, erreklamazioaren egileak aurkeztutako alegazioak ezetsi egin direlako.

- **968-2011 epaitza**, Eraikinen gaineko Zergaren 14.581,67 €-ko likidazioa berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

2005eko maiatzaren 23an, obra handirako lizentzia eman zitzaion, jasodura egiteko. Azaroaren 25ean, XXXX y otros CB-k eskubide jakin batzuk eskuratu zituen finkan. Azaroaren 25ean, erkidego horrek sustapen horri buruzko aholkularitza osoa eskaintzeko zerbitzua emateko kontratatu zuen. Bertan, lizentziaren eskualdaketa aipatzen da. Obrak iraun duen epealdian, interesduna

erkidegoaren izenean aritu da. Obra jasotzeko aktan jasota dago erkidegoa eraikinaren jabe gisa aritu dela. Zerga-ordenantzako 8. artikulua araberan, obraren jabea da zerga honen zergaduna. Likidazioa deuseztatzea eskatu du, eta XXXX y otros CB-ren izenean egongo den beste likidazio batengatik ordezkatzeko.

Azalpena,

2005eko maiatzaren 23an, obra handirako lizentzia eskatu zen, jasodura egiteko. Udalak lizentzia eman zion, eta bere izenean egin zuen Eraikinen gaineko Zergaren likidazioa. 2011ko ekainaren 22an, berraztertze errekurtsoa jarri zuen. 2011ko irailaren 22an, aurkeztutako errekurtsoa ezetsi egin zela jakinarazi zitzaion.

2011ko urriaren 14an, Auzitegiko Idazkaritzak XXXX y otros CB-i espedientea helarazi zion, erreklamazio egileak likidazioa erkidegoaren izenean egiteko aurkeztutako eskaeraren aurkako alegazioak presta zitzaizkion, egoki ikusten bazuen. 2011ko azaroaren 10ean, XXXX Auzitegiko Idazkaritzan aurkeztu zuen, haren izenean. Azken horrek espedientea egiaztatu zuen, XXX-k egindako alegazioekin bat zetorrela adierazi zuen, eta bere helbidea eman zuen jakinarazpenak jasotzeko eta likidazioa egiteko.

Eraikinen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzako 8. artikulua honako hau dio subjektu pasiboaren zergadun izaerari buruz: *Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, ...eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe izanez gero, eraikinaren edo higiezinaren jabe izan edo ez izan. Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteak dakarren gastuari helden diona da eraikuntza, instalazioa edo obraren jabea.* Bestetik, 9. artikulua subjektu pasiboaren ordezkotza arautzen du: *Zergadunaren subjektu pasibo ordezkotza dute lizentziak eskatu edo eraikinak, instalazioak edo lanak burutzen dituztenak, zergadunak berak ez balira. Edonola ere, Udalak zergadun izaera duen pertsona edo erakundearen nortasuna eta helbidea galdatu ahal izango dizkio zergadunaren ordezkotzari.*

Aztertu dira eraikuntza-espedientea osatzen duten dokumentuetan jasotzen diren gertakariak eta erreklamazio honekin batera aurkeztutakoak, eta egiaztatu da XXX-k 2004ko urriaren 26an eskatu zuela jasodura egiteko lizentzia, haren izenean. Halaber, egiaztatu da 2005eko ondorengo idazkietan ez zuela aipatu eskaera erkidegoaren izenean egin zuenik, eta 2009ko otsailaren 20ko idazkian soilik aipatu zuela. Horrela, 2005eko azaroaren 25a arte, zergadunaren ordezkotza subjektu pasibotzat jo behar da, aipatutako zerga-ordenantzako 9. artikulua xedatzen duenari jarraiki. 2005eko azaroaren 25ean, XXX-k XXXX y otros CB erkidegoari eskualdatu zion eraikitze lizentzia, zerbitzuak emateko kontratu baten bidez. Horrenbestez, egun horretatik aurrera, hots, 2005eko azaroren 25etik aurrera, XXX y otros CB zergadun subjektu pasibotzat jo behar dira, zergadunaren baldintzak betetzen dituztelako.

Erreklamazioaren egileak aurkeztutako dokumentuen artean, badago 2005eko azaroaren 25eko dokumentu bat non lizentzia eskualdatu egiten den. Horri eta zerga-ordenantzako aipatutako artikuluei jarraiki, subjektu pasibo zergaduntzat jo behar dira. Aztertu dira salerosketako XXX zenbakidun eskritura publikoak, jasodura eskubidea jaregiteko dokumentuak, birgaitze- eta jasodura-lanen proiektu-adierazpena. Horietan guztietan, honako hauek agertzen dira erosle gisa: XXX eta XXX (% 29,84), XXX (% 34,50), eta XXX, eta haren izenean XXX,

(% 35,66). Horrenbestez, onartu behar dira erreklamazioaren egilearen alegazioak.

- Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa baietsi egin behar da, likidazioa deuseztatu, eta XXX y otros CB-ren izenean dagoen beste batengatik ordezkatu. Likidazio berria XXX-ri jakinaraziko zaio, XXXX helbidean.

### Ibilgailuen gaineko Zerga.

- **214-2011 epaitza**, 2010 baino lehenagoko XXX Ibilgailuen gaineko Zergaren ordainagiri batzuen zati bat ez itzultzeko eskaera berraztertze errekurtsoa zati batean ezestearen aurkako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Ibilgailua 1998ko irailean matrikulatu zen, eta administrazio-akats bat dela eta, 13,290 zaldiko potentzia esleitu zitzaion. Egindako alegazioak arrazoitzeko agiriak aurkeztu ditu. 2001eko maitzaren 17an egindako eskaeraren ondorioz, Trafiko Agintaritzak akats hori zuzendu zuen. Aldaketa hori jakinarazia izan zela esan zion Trafiko Ordezkaritzak. Administrazioaren akats materiala da, eta ez du akats hori antzematerik izan. Horregatik, urte hauetan guztietan soberan ordaindutakoa itzultzea eskatu du.

Azalpena,

XXX ibilgailuaren jabe da XXX. Udalak 12 eta 13,99 zaldi bitartekoei dagozkien tarifa aplikatu dio Ibilgailuen gaineko Zergan. 2010eko maiatzaren 21ean, berraztertze errekurtsoa jarri zuen interesdunak. 2010eko abenduaren 22an, aurkeztutako errekurtsoa zati batean baietsi egin zen, ezetsi egin zelako 2010. urtea baino lehenagoko ordainagiriei zegokien zenbatekoa itzultzea.

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzan honako hau esaten da 2010 aurreko ibilgailuei aplikatu beharreko zerga-kuotei buruz: *Zerga*

*eranskinean agertzen den tarifa-taularen arabera galdatuko da. Ikusi da Ordenantza horietako eranskin guztietan kuotak potentziaren arabera bereizten direla: kuota bat 9 eta 11,99 zaldi bitarteko potentzia duten ibilgailuentzat, eta beste bat 12 eta 13,99 zaldi bitartekoentzat.*

Interesdunak XXX ibilgailuaren fitxa teknikoa aurkeztu du. Fitxa horretan, akats bat dagoela eta ibilgailuak 10,73 zaldiko potentzia duela adierazten da, 2010eko maiatzaren 10ean.

Hemen aurkakotutako errekurtsua zati batean ezetsi zuen ebazpenak 2010eko ordainagiria zuzentzea onartu zuen, ibilgailuaren zerga-potentzia zuzendu behar zelako. Hau da, errekurtsua baietsi egin da akatsa onartzen duen aldetik.

2010 aurreko ekitaldietan ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskaeraren arloan, beti bereizi izan dira bi egoera juridiko. Batetik, izatezko akatsen, akats materialen edo aritmetikoen ondoriozkoak –gaur egun, itzulketa eskatzeko eta lortzeko epea lau urtekoa da–. Eta, bestetik, zuzenbideko akatsen ondoriozkoak (akats horien pean erori da likidazio egintza); sarrera horiek itzultzeko, lehendabizi, aipatutako likidazio egintzari aurka egin beharko zaio nahitaez, deusezta edo alda dadin. Horren emaitzatik etorriko da bidegabe ordaindutakoa itzultzea.

Zerga Foru Arau Orokorraren 228. artikulua honako hau dio diru-sarrerak itzultzeari buruz: *Okerreko sarrerak itzultzeko eskubidearen aitoren prozedura ofizioz edo interesatuak eskatuta hasiko da, zerga zorrak bi bider ordaindu bada; administrazio egintza baten edo autolikidazio baten ondorioz ordaindu beharrekoa baino gehiago ordaindu bada; preskribitzeko epeak igaroz geroztik zerga zorrei dagozkien diru-sarrerarik egin bada; zergen alorreko araudian hala agintzen bada. Okerreko sarrera egiteko erabili zen zergen aplikazioari buruzko egintza irmo bihurtzen denean, hura itzultzeko eskatu ahal izango da bakarrik egintzaren berrikuspena eskatuz edo sustatuz, akatsak zuzentzeko 223. artikulua a), c) eta d) letretan jasotako berraztertze prozedura berezietako baten bidez, eta 246. artikuluan adierazten den berraztertze errekurtsuaren bidez.*

2010 aurreko ordainagiriaren sarrerak itzultzeko eskaera Zerga Foru Arau Orokorraren 228.3) artikulua egintza irmoetarako zehazki araututako suposizioen artean dago. Egintza irmo horietan akatsen zuzenketa sustatzen denean soilik eska daiteke dirua itzultzea, eta legezko suposizio horri lotzen zaio ibilgailuaren zerga potentzian eginiko akats numerikoagatiko (10,73 zaldi 13,290 zaldiren orde) berraztertze errekurtsuari dagokion udalaren baiestearen erreklamazio hau.

Jurisprudentzia sendoa dago gai honen inguruan aspalditik, Auzitegi Nagusiak epai askotan aditzera eman duen bezalaxe, adibidez, 2007ko urriaren 8ko epaian, eta honako hau zehazten duen doktrina jo da zuzentzat: *Okerreko sarrerak itzultzeko bost urteko epea honako kasu hauetan soilik aplikatuko da:*

*zerga bera bi bider ordaindu bada, eta izatezko akatsa nabaria denean, ez zuzenbidekoa.* Horrenbestez, preskribatu gabeko ordainagiriak itzultzea baietsi egin behar da.

Aztertu da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egin-tzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzen duen 41/2006 Foru Dekretuaren 25.1. artikulua. Artikulu horrek honako hau dio: *Okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea onartu ahal izango da: ...erreklamazio ekonomiko-administratiboaren indarrez...*

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakariak kontuan izanik, eta azaldutako xedapenen arabera, erreklamazioa baietsi egin behar da.

- **489-2011 epaitza**, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren likidazioaren zati bat, 240,38 €, itzultzeko ebazpenaren aurkako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Ibilgailua 2010eko ekainean desegin zen, eta horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren likidazioari dagokion zati proportzionala itzultzea eskatu du. Ekainetik urtea bukatu bitarteko aldiari dagokion zenbatekoa itzultzea eskatu du.

Azalpena,

XXXren izenean dagoen ibilgailua ibilgailuak desegiteko baimendutako enpresa bati eman zitzaion, 2010eko ekainaren 8an. Ez da ordaindu urteko Ibilgailuen gaineko Zergaren likidazioa, 240,38 €-koa.

Interesdunak aurkeztutako kasua arautzen duen araudia Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzan jasota dago. Zerga-ordenantza horretako 6. artikulua zergaren zergaldia ezartzen du eta honako hau dio:

*Zergaldia berezko urtea bera da, bi salbuespenekin: lehen erosketa denean, erosketa egindako egunean hasiko baita; eta, ibilgailuen bajaren kasuan, orduan zergaldia Trafiko Buruzagitzak baja ematen duen egunean bukatuko baita.* Ibilgailuaren baja egiaztatu da, eta Udalaren zergen datu-basean jasota dago Trafiko Buruzagitzak 2010eko ekainaren 8an eman ziola behin betiko baja XXX ibilgailuari.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzako 12. artikulua honako hau dio kuoten banaketari eta itzulketari buruz: *Lehenbiziko automobila erostekoan, behin betiko baja ematekoan nahiz automobila kendu edo lapurtu izanagatik errolda publikotik behin-behingoan baja*



*ematekoan, hilabeteen arabera kobratuko da kuota, alta edo baja ematen den hilabetea ere sartuta.*

*Udalak urtarrilaren 1a edo ibilgailuaren erosketa-data eta Trafiko Buruzagitzak baja emandako data bitarteko aldiari dagokion zergaren kendura proportzionala itzuliko die horrela eskatzen duten subjektu pasiboiei, aurrez ordainketaren udal-ziurtagiria aurkeztuz gero.*

Ondorioz, eta zerga-ordenantzak zergaldi berezi hori arautzen duenez, kuota banatu egin behar da eta likidazio berri bat praktikatu, 2010eko urtarrilaren 1etik bajaren egunerainoko epea hartuko duena.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta azaldutako xedapenen indarrez, baietsi egin behar da erreklamazioa.

- **561-2011 epaitza**, Ibilgailuen gaineko Zergaren 186,96 €-ko hobari-eskaera berraztertzeke errekurtsua ezestearen aurkako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Ez zekien hobaria jasotzeko eskubidea zuenik; horregatik ez du lehenago eskatu ordainagiria itzultzea. 2010eko ordainagiria itzul dakion eskatu du.

Azalpena,

XXX jaun/andreak XXXX Ibilgailuen gaineko Zergaren hobaria eskatu zuen, ibilgailuak 26 urteko antzinakotasuna zuelako. 2010eko abenduaren 10ean, hobari-eskaera berraztertzeke errekurtsua jarri zuen. 2010eko maiatzaren 16an, 2010eko ekitaldiari dagokion errekurtsua ezetsi egin zela jakinarazi zitzaion, eta 2011ko eraginetarako baietsi egin zela.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen 14/1989 Foru Arauaren 4.5. artikulua arautzen duenez, *udalerriek honako hobari hauek arautu ahal izango dituzte: % 100eko hobaria, fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez 25 urteko antzintasuna duten ibilgailuetarako. Aurreko hizkietan aipatzen diren hobarien gainerako funtsezko eta formazko alderdien arautzea Ordenantza fiskalean ezarriko da.* Ikus daitekeenez, hobariak emateko baldintzak dagokion zerga-ordenantzan jasotzeko aukera ematen du Arauak. Hortaz, Udalari dagokio zer dokumentu eta noiz eskatzen dituen erabakitzea.

Aztertu da hobari hori arautzen duen udal araudia, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzako 10. artikulua, eta egiaztatu da Udalak hobariari buruzko foru araua jasotzen duela, eta hobari hori onartzeko alor formalak arautzen dituela. Halaber, hobaria noiz onartu behar

den ezartzen du Udalak, eta egiaztatu da ez duela zehazten eskaera aurkezteko eperik, hobariak eskatutako aldi eragina izan dezan:

*Udalak onartu behar du hobari-eskaera. Onartuz gero, hobariak eskatutako zergaldian izango du eragina.*

*% 100eko hobaria izango dute fabrikatu ziren egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna duten ibilgailuek.*

Hau da, argi eta garbi ezarrita dago onartutako hobariak eskatutako zergaldian izango duela eragina.

14/1989 Foru Arauaren 4. artikulua ez du hobaria eskatzeko epe jakin bat ezartzen, eta ondorioz, ulertu behar da Legeak zerga hobaria jasotzeko eskubidea duela uste duenari eskaera dagokion kudeaketa organoari egitea eskatzen diola soilik. Halaber, araudiak ez du esaten eskaera zergaren ordainagiriari aurka egiteko epea bukatu aurretik egin behar denik, betiere, noski, zerga betebeharren preskripzio-epea bukatu aurretik eskatu bada.

Legeak ez du ezartzen noiz eskatu behar den zerga hobaria, eta hortaz, ulertu behar da legegilearentzat eta Udalarentzat nahikoa dela interesdunak hobari hori eskatzea, eskaera bidezko hobaria delako. Ez dago ezarrita eskaera epe jakin batean egin behar denik, izan ere, ez dago horretara derrigortzen duen araurik. Zerga hobari hau jaso ahal izateko, lege eskakizun batzuk bete behar dira, kasu honetan betetzen direnak. Bestetik, eskaera bost urteko epearen barruan egin behar da; emandako hobariak eragin juridikoa izango du dagokion ekitaldian, zerga-ordenantzako arabera. Horrela, Toki Ogasunen Legearen 74. artikulua ezartzen duen hobaria eskatu dela ulertu behar da, eta udal administrazioak hobari hori eman behar duela. Izan ere, eta ezarritako lege eskakizunak betetzen baditu, hobaria ezinbestean aitortu egin behar da.

Bestalde, ezin da interpretatu, aurkakotutako ebazpenean egiten den bezala, jasotzen diren zerga hobariak hurrengo ekitalditik aurrera eragina izan behar dutenik. Eskakizun hori ez dago legean jasota, eta araudiak aitortzen duen eskubide bati aurka egiten dio, arrazoi formalengatik soilik.

Aplikagarriak diren araudiek ez dute eperik ezartzen, eta hortaz, udal-ebazpenak ez du oinarriarik. Horrenbestez, ebazpen hori ezetsi egin behar da; 9143 GBW ibilgailuak antzinatasunaren eskakizuna betetzen duela egiaztatu da, eta hobaria 2010etik edukitzeko eskubidea aitortu behar zaio.

Ordaindutako ordainagiria itzultzeko eta % 100eko hobaria eskatu zeneko ekitalditik aurrera aitortzeko nahiari dagokionez, kontuan hartu behar da 41/2006 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzen duena. Dekretu horren arabera, *okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea honako kasuetan aitortu ahal izango da: Kapitulu honetako 2. atalean arautzen den eskubidea aitortzeko prozedura bidez, Zergen Foru Arau Orokorren 228.1 artikuluan adierazten diren kasuetan, eta berraztertzeko*

*prozedura berezietako baten bidez, ebazpen administratibo baten indarrez, edota erreklamazio ekonomiko-administratibo baten indarrez. Erreklamazioaren funtsa onartu denez, zenbatekoa itzultzeko eskubidea aitortu behar da.*

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa baietsi egin behar da.

- **962-2011 epaitza**, Ibilgailuen gaineko Zergaren 40,78 €-ko ordainagiriko premiamendu-probidentziaren aurkako erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

Premiamendu-probidentziak eragiten dion XXX ibilgailuaren jabetza zirkunstantziala da. Ibilgailu hori beste pertsona bati saldu zion, eta ez du jabe berriaren erreferentziarik. XXX ibilgailuaren jabe da, eta horri dagozkion ordainagiriak ordaintzen ditu. % 75eko ezgaitasuna aitortuta du 2010eko ekainaren 15etik, eta Udalak 2011tik XXX ibilgailuaren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsi du. Premiamendu-probidentzia deuseztatzea eskatu du.

Azalpena,

Udalak XXX ibilgailuaren gaineko Zerga likidatu du. Ibilgailuen gaineko Zerga borondatezko-epean ordaindu ez denez, betearazte prozedura abian jarri da, premiamendu-probidentzia ebatziz.

Betearazte prozeduraren fase honetan, erreklamazioa egin duen aldeak martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 171. artikuluan finkatutako aurkakotzeko arrazoi Tasatuak soilik har ditzake aintzat:

XXX ibilgailuaren jabetza zirkunstantzialaren alegazioari dagokionez, Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzako 5. artikulua, sortzapenari buruzkoak, honako hau ezartzen du: *zergaldiko lehen egunean sortuko da zerga.*

Udalan jasota dago interesdunak XXX ibilgailua 2001ko uztailaren 13an erosi zuela. Zergaldiari buruzko 6. artikulua honako hau ezartzen du: *zergaldia berezko urtea bera da, bi salbuespenekin: lehen erosketa denean, erosketa egindako egunean hasiko baita; eta ibilgailuen bajaren kasuan, orduan zergaldia Trafiko Buruzagitzak baja ematen duen egunean bukatuko baita.*

Hau da, zerga honen kuota ordaintzeko betebeharra urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31ean bukatzen da, matrikulazio berrien eta behinbetiko bajen kasuetan ez ezik. Hori dela eta, zuzenbidearekin bat dator ordainagiri hori urtero likidatzea. XXX ibilgailuari dagokionez, egiaztatu da ibilgailua eskualdatu dela, eta eskualdaketa Trafiko Buruzagitzan gauzatu zela, 2011ko uztailaren 12an. Era berean, egiaztatu da interesdunari baja eman zaiola zerga erroldan, 2012ko ekitaldirako.

XXX ibilgailuari dagokion zergatik salbuesteko alegazioari dagokionez, egiaztatu da salbuespen hori 2011ko apirilaren 27an aitortu zitzaioela, eta salbuespenak eraginak dituela 2011ko ekitalditik aurrera.

Eragin horietarako, zerga-ordenantzako 9. artikulua honako hau jakinarazten du mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuen aldeko salbuespena arautzen duenean: *Aurreikusitako salbuespenak ez zaizkie onuradun diren subjektu pasiboiei ibilgailu bat baino gehiagorengatik aplikagarri izango.*

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, eta kontuan hartuta ez dela Gipuzkoako Zergen

Foru Arauaren 171. artikulua onartzen dituen arrazoietakoa bat bera ere ematen, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

### **Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga.**

- **509-2011 epaitza**, zergaren 2.783,58 €-ko likidazioen aurka jarritako erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

Zerga honekin kargatutako lursailak ez ziren 2002ko urriaren 11ean erosi, 2006ko urtarrilaren 12an baizik. Espedientea helarazi zitzaion, kargatutako lursailen erosketa-data jasotzen duen dokumentu publikoa aurkez zezan. 2011ko ekainaren 30ean, sozietatearen kapitala aldi berean murrizteko eta zabaltzeko eskritura aurkeztu zuen, 2006ko urtarrilaren 12koa. Horrekin batera, likidazioetan gertatutako akats materialei buruzko alegazioak gaineratu zituen. Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren ondorioz ordaindutako zenbatekoak itzultzea eskatu du.

Azalpena,

Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergak epe jakin batean gertatutako lursailen gainbalioa edo balio gehikuntza kargatzen du, eta zerga horrekin karga daitekeen gainbalioa zehazteko, epe hau kontuan hartu behar da: zergaren sortzapena hasten denetik, zergari atxikita dagoen azken eragiketa gauzatzen den arte. Erreklamazio honetan aztertu behar da zergaren sortzapen-data interesdunak alegatutakoa, 2006ko urtarrilaren 12a, ala aplikatutakoa, 2002ko urriaren 11a, den. Horri dagokionez, zerga hori arautzen duen zerga-ordenantzako 4. artikulua honako hau dio: *zerga sortu egiten da: Lursailaren jabetza eskualdatzean, bai kostu bidezko gisa bai dohainezko gisa, biziaren artean edo heriotza dela-eta, eskualdatzen den egunean. Jabariaren gozamendu*

*mugatzailearen edozein eskubide erreala eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa gauzatzen den egunean.* Gure ordenamendu juridikoan nagusi den titulua eta modua teoriak dioenez, Kode Zibilaren 1462. artikulua, jabetzaren erosketa eman dadin ez da nahikoa salerosketa kontratu soila edo eratzeko egintza (titulua), baizik eta, gainera, beste baldintza bat eman behar da, tradizioa edo ondasunaren entrega (modua). Eskakizun horrek eskualdaketa eratzten edo gauzatzen du, eta burututzat ulertuko da notarioaren eskriturarekin. Zerga sortzen den datari dagokionez, erreklamazio egileak SL sozietatearen kapitala aldi berean murrizteko eta igotzeko 2006ko urtarrilaren 12ko eskritura publikoa aurkeztu du bere alegazioa oinarritzeko, eta eskualdatze-data 2006ko urtarrilaren 12a dela, eta hortaz, ez dela zergagarria arrazoitzeko. Eskritura publiko horren arabera, sozietatearen kapitala bazkideen ekarpenen bitartez aldatu zen, XXX hiri lurzatiaren XXX-ren bitartez, hain zuzen ere. Egiaztatu da

eskritura publiko honetan honako hau jasotzen dela: *Deskribatutako orubea XXX-ren jabetzakoa da, eta jabeetza hori Donostiako konpentsazio-proiektuan esleitu zitzaion. Proiektu hori alkateak onartu zuen, 2002ko urriaren 11ko ebazpen bidez.*

Zergen Zuzendaritza Nagusiak, urriaren 29ko 111/2003 kontsultari erantzutean, honako adierazpen hau egin zuen:

*Sozietateen gaineko Zergak arautzen dituen legearen zortzigarren xedapenaren 3. atalean, honako hau ezartzen da: Ez da sortuko Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga, baldin eta Lege honen VIII. Tituluko VIII. Kapituluaren araututako erregimen berezia aplikagarria zaien eragiketetatik eratorritako eskualdaketen ondorioz gertatu bada. Lege honen 108. artikuluan jasotakoaren arabera ematen diren lurren gaineko eragiketak hortik kanpo geratzen dira, lurra jarduera adar batean sartuta ez daudenean. Aipaturiko lurra geroago eskualdatzen badira, VIII. Tituluaren VIII. Kapituluaren jasotako eragiketetatik eratorritako eskualdaketak ez du etengo balio gehikuntza sortu duen urte kopurua. Ez da aplikagarria Toki Ogasunei buruzko 39/1988 legearen 9.2 artikulua xedatzen duena. Hortaz, ez da sortuko Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga, baldin eta gauzatutako eragiketari Lege honen VIII. Tituluko VIII. Kapituluaren araututako erregimen berezia aplikagarria izan bazaio, 108. artikulua bitartez, betiere hiri lurra jarduera adar baten zati gisa ekarri badira sozietatera. Azken baldintza hori betetzeko, ezinbestekoa da Legearen 97.4 artikulua xedatutakoa betetzea. Hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatu behar da egintza horretan ez zela zergarik sortu.*

Era berean, eta likidazioak egiteko 2002ko urriaren 11ko data erabili izanari dagokionez, jurisprudentziak ezartzen du konpentsazio-proiektuaren onarpen-data ez duela eskualdatzea jasotzen. Horrela, Auzitegi Nagusiak 1994ko urriaren 21ean, eta Sevillako Auzitegiak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako epaitzek, besteak beste, honako hau ezarri zuten: 1992ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren 159.4. artikulua arabera, "konpentsazio batzordea eratzeko exekuzio-unitatearen jabeek eginiko ekarpenen ondorioz egiten diren lurren

eskualdaketak, batzordearen Estatutuetan horrela jasota badago, edota nahitaezko desjabetzearen indarrez, eta aipatutako batzordeetako kide diren jabeen alde egiten diren orubeen esleipenak, haiek gehitutako lursailekiko proportzionalak izango direnak. Esleipen horiek ez dira eskualdatzetzat joko Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga salbuesteko eraginetarako. Jabe bati esleitutako orubeen balioak proportzionalki gaintitzen badu hark emandako lurrei dagokien balioa, likidazioa balioen arteko alde horri egokituko zaio”.

Horrenbestez, Konpentsazio Batzordearen ekarpenen ondorioz egiten diren eskualdaketak, eta geroago jabeen alde egiten diren esleipenak ez dira eskualdatzetzat joko Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari dagokionez, eta hortaz, lursail horiek besterentzen direnean, emandako lurren erosketa-datan hasiko da balio gehikuntzaren epea – kasu honetan, Toki Ogasunak arautzen dituen legearen 108.2. artikuluan ezartzen den hogeituro urteko muga indarrean dago—. Bestetik, komeni da azpimarratzea azaldu berri den doktrina behin eta berriz ematen duela Auzitegi Nagusiak (1996ko abenduaren 27ko eta 1997ko ekainaren 6ko epaiak, adibidez), eta kasu honetan aipatutako Auzitegiak 2000ko urriaren 30ean emandako epaitza ere aipa daitekeela. Izan ere, epai horren bosgarren zuzenbideko oinarrian zera adierazten da (gogoratu behar dugu ebazpen horretan epaitzen zen kasuan, sektorea konpentsazio-sistemaren bidez garatu zela): “Konpentsazio-proiektua behin betiko onartu izanak konpentsatzeko prozesuan emandako finak prozesu horren ondorioz esleitutako lur-zatiengatik subrogatzea dakar, benetako eraginkortasunarekin, eta ekarpen eta esleipen horiek ez dira jabetza eskualdaketatzat hartuko 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren 129.3. artikulua dioena betez.

Horrela, argi dago Konpentsazio Proiektua behin betiko onartzeak ez zuela eraginik izan 1. zenbakiko lurzattia besterentzeagatik zergan. Izan ere, lurzati hori haren titularraren jabetzakoa zen, subrogazio bidez, emandako lur-zattia erosi zuenetik.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da, ez delako onartzen aurreko eskualdaketa 2006ko urtarrilaren 12an egin zenik.

- **640-2011 epaitza**, 3.490,12 €-ko bahitura-diligentzia berraztertzeko errekurtsioa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Gurasoek finka dohaintzan eman zioten semeari, XXXX(e)an. Aurkatutako Balio Gehikuntzaren Zergarekin kargatutako dohaintza baliogabetzeko, dohaintza horrek XXX hitzarmen arauemailea hautsi egiten duela arrazoitu da. Hitzarmen horretan, etxebizitza bi semeei, bi zati berdinetan, dohaintzan emateko betebeharra jasotzen da. Dohaintza baliogabetzeko aukera XXX dokumentu

publikoan aitortuta dago; legeak ezartzen duen muga bat da, eta nahikoa da ordainagiria baliogabetzeko; hori horrela ez balitz, interesdunek bide judizialera jo beharko lukete notario-fasean lortutako emaitza berbera lortzeko. Kode Zibilaren 624. artikulua aipatu du. Bahitura-diligentziatik Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari eta Zaborra biltzeagatiko Zergari dagozkion likidazioak baliogabetzea eskatu du.

Azalpena,

Auzitegiak 2011ko ekainaren 7an aztertu zuen erreklamazioa, eta dohaintza baliogabetzea behar bezala kreditatuta ez dagoela ondorioztatu zuen. Horren arabera, Auzitegiko Idazkaritzak interesdunari dohaintza baliogabetuta dagoela adieraziko duen Jabetzaren Erregistroaren inskripzioa aurkeztea eskatzea erabaki du, zergaren eraginetarako onartu ahal izateko. XXXX(e)an,

interesdunak idazki bat aurkeztu du zerga eragiten duena XXXren eskritura dela adieraziz, eta hori dokumenturik gabe igorri gero, balio gehikuntza baliogabea dela. Dohaintza eskritura bidez baliogabetua izan dela frogatzeko erregistroaren ziurtagiria aurkezteko betebeharrari dagokionez, interesdunak dio baliogabetzea inskribatzea ez dela nahitaezkoa, eta horrek ez duela eraginik zerga honetan. Era berean, eskualdaketa ezezteko erabakia indarrean dagoela alegatu du.

Erreklamazio horretan, berraztertze errekurtsoa ezetsi izana da auzigaia, eta zentzu horretan, zerga-ordenantzako 4.3. artikulua ordez, 4.4. artikulua aplikatu izanaren aurkako errekurtsoa ezatea zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertu da. 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 174.3. artikulua xedatzen duenaren arabera, ezin da alegaziorik aurkeztu, ondorengo arrazoi Tasatuak izan ezik: ...

Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzako 4.3 artikulua honako hau ezartzen du: *Ebazpen irmo baten bidez, epaileak edo administrazioak jotzen edo aitortzen duenean lurraren eskualdaketa ekarri duen egintza edo kontratua nahiz lurra gozatzeko eskubide errealearen eraketa edo eskualdaketa ekarri duena deuseztatu, hutsaldu edo hautsi egin dela, subjektu pasiboak ordaindutako zerga berreskuratze eskubidea izango du, beti ere egintza nahiz kontratuak ez badio irabazirik ekarri eta ebazpena irmo geratu zenetik lau urte iragan baino lehen egiten badu erreklamazioa; interesatuek Kode Zibileko 1.295. artikulua aipatzen dituen elkarrekiko itzulketak egin behar dituztela justifikatzen ez denean, irabazirik badela joko da.*

Eta 4.4. artikulua: *Kontratua efekturik gabe geratuko balitz kontratua egin duten alderdiek elkarrekin hartutako akordioaz, ez da bidezko izango ordaindutako zergaren itzulketa, tributuzko egintza berriztat hartuko delarik. Elkarren arteko akordiotzat adiskidetze egintzan bat etortzea eta demandaren menperatze soila hartuko dira.*

Aipatutako artikuluetatik zein den aplikagarri erabaki behar du Auzitegi honek.

Dohaintza baliogabetuta dagoela egiaztatu da xXXX eskritura publikoaren kopia sinplearen bitartez, espedientearekin batera jasotzen dena. Beste eskritura bat ezeztatzen duen eskritura publiko horretan, honako hau adierazten da: *bertaratutakoek XXX eskrituraren babespean egindako dohaintza baliogabetzen dute, ez delako bete hitzarmen arautzailean hitzartutako eskakizuna.*

Dohaintza baliogabetzeko arrazoia aztertu da, eta ondorioztatzen da, erabaki hori ez dela alde guztien artean hartu, baizik eta inposatua izan dela, eta ez dela irabazi asmorik egon. Kasu honetan 4.4. artikulua ez dela aplikagarria erabaki eta gero, zergarekin kargatutako lursailaren eskualdaketa jasotzen duen egintza baliogabetzeko ebazpena Auzitegiari ematea dagokion ala ez aztertu da.

Aztertu dira Auzitegi Nagusiaren 1997ko uztailaren 24ko eta 2004ko urtarrilaren 23ko ebazpenak, kontratua ez existitzeagatik edota eraginik gabe geratzeagatik egintza baliogabetzea eta likidazioa deuseztatzea onartzen dutenak. Izan ere, ez da ezer eskualdatu, hau da, finkaren zerga, eskualdaketa, ematea edo traditioa sortzeko eskualdaketa gauzatu ahal izateko oinarritzko elementua falta da.

Erreklamazio honetan egoera eta gertakari berberak jasotzen dira, eta horrenbestez, Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari dagokion erreklamazioa baietsi egin behar da.

Zaborrak biltzeko Tasari buruzko likidazioei dagokienez, zaborrak biltzeko zerbitzuari dagokion Tasa arautzen duen zerga-ordenantzako 6. artikulua zera dio ordezkari gisako subjektu pasiboei buruz: *Zergadunaren ordezkari gisa subjektu pasibo dira ogasun higiezinaren jabeak.* Auzitegiaren iritziz, XXXX ez da jabetzan sartu, eta horrenbestez, hark eginiko alegazioa onartzea eta Tasa gurasoei, hau da, aurkeztutako eskrituraren arabera jabetzaren jabeai, likidatzea erabaki du.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei eta doktrinari jarraituz, erreklamazioa baietsi egin behar da, eta dohaintzaren baliogabetasuna aitortu, likidazioa baliogabetu eta betearazte-prozedura bertan behera utzi, zorra desagertu delako.

- **731-2011 epaitza**, Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioen aurkako erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

Likidazioetan hobariak aplikatu behar direla uste du. Likidazioak jasotzerakoan zerga hau kudeatzen duen sailarekin harremanetan jarri zen, eta sailetik likidazio horiek desegokiak zirela adierazi zioten. Hobaria aitortzeko ordenantzaren 7. artikulua alegatu du, eta preskripzio-epea gainditu ez denez, likidazioetan hobaria aplikatzea eta soberan ordaindutakoa adierazitako kontu korrontean sartzea eskatu du.



Azalpena,

Erreklamazio horretan, berraztertze errekurtsoan kuotaren % 95eko eta % 10eko hobariak aplikatzea ezetsi izana da auzigaia, eta hortaz, ezespenez hori zuzenbideari egokitzen zaion aztertu da.

Aurkakotutako ebazpenak ez du hobari hori jasotzeko eskubidea jasotzen, eta justifikatzeko honako arrazoi hauek ematen ditu: subjektu pasiboak ez zituen hobariak ezarritako denboran, ordaintzeko borondatezko epearen barruan, eta moduan eskatu, eta egintza irmoa da. Egiaztatu da zerga sortu zen unean, 2008an, indarrean zegoen zerga-ordenantzako 6. artikulua udalari hobari hori aitortzeko modua arautzeko eskumena ematen ziola: *Mortis causa oinordekoen eta adoptatuen alde dohain egiten diren lur eskualdatze edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzten edo eskualdatzeak egitean hobari hauek izango dira: kuota osoaren % 95 senar edo emazteentzat, oinordekoentzat eta guraso-ordeentzat. Hobari hau jasotzeko ezinbestekoa da udalak alde*

*aurretik hobaria jasotzeko eskubidea onartzea...* Bestetik, aitorten-likidazioaren aurkezpena arautzen duen 16. artikulua hobariak jasotzeko eskubidea arrazoituko duen dokumentua aurkeztea eskatzen du: *Aitorten-likidazioak...salbuespen eta hobarietarako eskubidea egiaztatzen dutena giriekin batera aurkeztu behar dira.* Hau da, hobaria aitorten-likidazioa aurkezteko epean eskatu behar dela ezarrita dago.

Gauzatutako likidazioak zuzentzeko eskaeran interesdunak egindako alegazioetatik ondorioztatzen da hobari-eskaera ez zela aitorten-likidazioa aurkezteko epe barruan egin, ezta likidazioa ordaintzeko epean ere (2009ko ekainaren 10ean egin zen ordainketa). Halaber, egiaztatu da hobariak eskatzeko lege-eskakizunak (eskaera bidezko hobaria zelako), lehen aldiz, XXX idazkian bete zituela. Hau da, eskaera epetik kanpo egin zen, eta likidazio guztiak irmoak ziren data horretan. Horregatik, egoera hori aztertu da.

Alegazio honen eraginetarako, Auzitegi hau Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan oinarritu da. Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak, 2006ko irailaren 28ko bilkuran, 478/09 epaia eman zuen 387/08 berraztertze errekurtsoari erantzunez, eta honako hau ebatzi zuen: *hobaria ezesteko Udalak hartutako erabakia zuzenbideari egokitzen zaio, hobari-eskaera ez delako aurkeztu zergaren likidazio-aitorpena aurkezteko aurreikusitako epean.* Epaitza honen xede den erreklamazioaren antzeko erreklamazioa aztertu zuen Auzitegiak kasu horretan, hots, Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren hainbat likidaziori aurka egiteko erreklamazio bat. Auzitegiak emandako epaitza horren arabera, ez zen zerga-hobaria aplikatu aitorten-likidazioa ez zelako ezarritako epearen barruan aurkeztu.

Horrenbestez, ebatzitako epaitza ikusirik, hobaria ez aplikatzeko erabakia zuzenbidearekin bat datorrela baietsi egin behar da, eta preskripzio-epea

gainditu ez izanak ez duela eraginik, Udalak hobariak aitortzeko epea legez arautu baitu.

Egintzak administrazio bidetik berrikusteari buruzko 41/2006 Foru Dekretuaren 24. eta 25. artikuluen arabera, okerreko sarrerak itzultzeko prozedura eskatzeko zilegiztatuak dira: ...

Ez da 228.1. artikuluan jasotzen diren arrazoi bat bera ere eman; likidazio irmoak dira, 228.3. artikulua arabera, eta ez dira sarrerak itzultzeko beharrezkoak diren prozedurak, 223.a, c, d) artikuluetan jasotzen direnak, berraztertze prozedurak aurrera eraman.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

- **961-2011 epaitza**, jaraunspena dela eta Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioak berraztertze errekurtsua zati batean baiesteko erabakiaren aurka aurkeztutako erreklamazioa ezezten duena.

Alegazioa,

Udal-ebazpenak ez du ezertxo ere esaten praktikatu beharreko likidazio berrietatik ondorioztatzen den zenbatekoari buruz; erreklamaturako epeek preskribatu dutela uste dute, eta espedientea helaraztea eskatu dute. Eskaera gauzatu egin zen, eta XXX(e)an bidalitako idazki bidez, alegazioak egiteko epe bat ezarri zen, baina interesdunek ez zuten alegazio berririk aurkeztu.

Azalpena,

Epea preskribitu duelako alegazioari dagokionez, zerga bat preskribitutzat joko da zerga sortu zenetik lau urte pasa badira administrazioak likidaziorik egin gabe. Kasu honetan, Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzan ezarrita dagoenari jarraitu behar zaio, erreklamazio egileek preskripzioa irabazi duten ala ez aztertze. Azterketa horretan, zerga sortu zeneko data soilik kontuan hartu behar da, likidazioak egiteko ezartzen diren gainontzeko datek, adibidez 1932 eta 1965koak, eskualdatutako gozamina baloratzeko eragina dutelako soilik, ondarea eskuratzen dutenen adinaren arabera; eta, 1981 eta 1991ko datek jabetza eta jabetza soilak baloratzeko eragina dute soilik, data horiek finkak eskuratu zirenekoak baitira. Zerga hori arautzen duen zerga-ordenantzako 4. artikulua honako hau dio: *Heriotzagatiko eskualdaketatik, kausatzailea hil den egunean sortuko da zerga*. Jaraunspena onartzeko 2009ko azaroaren 4ko eskritura publikoan XXX 2009ko maiatzaren 5ean zendu zela adierazten da, eta horri jarraiki, zorra 2009ko maiatzaren 5ean bertan sortu zitzaizen oinordekoei. Egiaztatu da 2010eko martxoaren 17an

likidazio horiek berraztertze errekurtsoa aurkeztu zela. Horren guztiaren arabera, adierazten da Udalak arestian aipatutako lau urteko epearen barruan praktikatu zituela likidazioak, eta hortaz, likidatzeko egintza preskribatu gabe zegoela.

Hobariak aplikatzeari buruzko alegazioari dagokionez, zerga ordaintzeko unean indarrean zegoen 2009ko zerga-ordenantzako 7. artikulua honako hau dio: *Kuota osoaren %95ekoa senar edo emazteentzat, izatezko bikoteetako kideentzat, lehen graduko oinordeko zuzenentzat eta ume-ordeentzat, eskualdatutako ondasuna edo eskubidea ohiko bizilekua izanez gero, bere eranskin eta guzti, oinordeko horietako baten batentzat. Kuota osoaren %50ekoa senar edo emazteentzat, izatezko bikoteetako kideentzat, lehen graduko oinordeko zuzenentzat eta ume-ordeentzat, eskualdatutako ondasuna edo eskubidea etxebizitza izanez gero, bere eranskin eta guzti. Kuota osoaren %10ekoa senar edo emazteentzat, izatezko bikoteetako kideentzat, lehen graduko oinordeko zuzenentzat eta ume-ordeentzat, eskualdatutako ondasun edo eskubideari aurreko hobari horiek aplikatzeko modurik ez badago, eta gainerako oinordekoentzat, guraso edo guraso-ordeentzat beste era bateko ondasun higiezinak izanez gero.* Administrazio-espeditentean jasota dago jabetza eskualdatzen duena, XXXX jaun/andrea, 2009ko maiatzaren 5ean zendu zela. Udal-espeditentek 2009ko azaroaren 5eko idazki bat jasotzen du, eta bertan, orain erreklamatzeko den hobaria eskatzen da. Horrek esan nahi du hobari-eskaera ezarritako epearen barruan egin zela.

Espeditentean ikusi denez, hobaria eskatzen dutenak ez dira kausatzailearen lehen graduko oinorde, zehar-ahaide baizik. Hortaz, ondorioztatu da hobaria aplikatzea epe barruan eskatu arren, ez dela eskubide hori aitortu oinordekoak (arriba, ilobak eta biloba-ilobak) ez direlako kausatzailearen lehen mailako oinordeko zuzenak.

Berraztertze errekurtsoan aurkatutako likidazioak zuzendu dira, eta likidazio berriak praktikatu dira. Likidazio berri horietan, gozamenak balioesteko oinordekoen adina kontuan hartu da, eta gainontzekoetan jabetza soilari dagozkion baldintzak, udal-ebazpenean azaltzen diren oinordetzari buruzko 85/1994 Foru Dekretuaren xedapenen arabera. Ondorioz, likidazioak zuzenbidearekin bat datoz.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

- **1030-2011 epaitza**, Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren 6.928,75 €-ko likidazioen aurka aurkeztutako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

2011ko irailaren 16an, interesdunari jakinarazpen bat bidali zitzaion, aitortutako helbidera. Jakinarazpen horretan, alegazioak aurkezteko hilabeteko epea zuela adierazten zitzaion. Egun arte, ez da inolako idazkirik aurkeztu.

Azalpena,

Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantza aztertu da, eta likidazioak ordenantza horretan likidazioen oinarriari, zerga sortzeari, zergapeko egitateari eta subjektu pasiboari buruz ezarrita dagoenarekin bat datozen ala ez aztertu da. Ordenantzaren 4., 5., 8. eta 11. artikuluetan honako hau adierazita dago: *zerga lursailaren jabetza eskualdatzean ordainduko da; bizien arteko egintza edo kontratutan agiri publikoaz ematen denekoa da eskualdaketa eguna; Hiri izaerako lur batek zergaldian irabazi duen balioa izango da zerga-gaia; lurak eskualdatuz gero, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren arabera sortzapenean*

*duen balioa izango da zergaren sortzapena; lurak eskualdatzekoan, kostu-bidezkoak izanez gero, lurra ematen duen pertsona fisikoa edo juridikoa izango da zergaren subjektu pasiboa.*

Likidazioetan XXX-k sinatutako salerosketako eskritura publikoetako datak hartu behar dira zorrak sortzeko datatzat: 2008ko apirilaren 28a, 2008ko apirilaren 8a, 2007ko abuztuaren 21a, 2007ko abuztuaren 3a, 2007ko uztailaren 27a, 2007ko uztailaren 26a, 2007ko uztailaren 25a eta 2007ko uztailaren 19a.

Salerosketako eskritura publiko horietan finka horiek XXX-renak direla jasota dago; lursailari dagokionez, XXX-k eta XXX-k erosi zuten, 2003ko otsailaren 17ko eskritura publikoaren bidez (XXX protokolo-zenbakia).

Aurkatutako likidazioetan aplikatutako zergaren sortzapenak, hau da, finka horietako lursailen balioaren eraginetarako aplikatu diren zenbatekoak, Foru Aldundiaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren datu-baseko zergaldi bakoitzari dagozkion datuekin bat egiten duten egiaztatzeko, Auzitegiko Idazkaritzak Zerga Kudeaketako buruari txostena eskatu dio. 2011ko azaroaren 10ean jaulkitako txosten horren arabera, garaje izatera zuzenduta dauden finken likidazioetako zergaren sortzapena 0 €-koa da, eta hortaz, ez da bidezkoa zerga likidatzea; bulego izatera zuzenduta dauden finken katastro-balioak berrikusi dira, eta aldaketa txiki batzuk egin dira likidazioetan; horrela, 742,94 € itzuli behar zaio interesdunari, kontu korrontearen zenbakia ematen duenean.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa baietsi egin behar da. Horren arabera, garajetara aplikatutako likidazio guztiak itzuli behar dira, eta baita, egindako kalkuluen arabera, bulegoetako likidazioetan oker ordaindu diren zenbatekoak ere.

- **1070-2011 epaitza**, Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren 6.928,75 €-ko likidazioen aurka aurkeztutako erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

Foru Aldundiak eta Udalak emandako informazioa ez dator bat. Eusko Jaurlaritzarekin truke bat egin zen, eta ondorioz, bi etxebizitzek Babes Ofizialeko Etxebizitzaren kalifikazioa eskuratu zuten. Kalifikazio hori izanik, zergatik salbuetsita egon beharko lukete. Udalak erreklamazioa ezetsi du, udalerrri bakoitzak zerga hori arautzeko eskumena duelako. Estatuan zerga-salbuespen hori existitzen da. Foru Aldunditik aditzera eman dutenez, lurzoruaren balioak ezin du etxebizitzaren balioa % 20an gaintitu (2010eko balioak aipatzen ditu). 2009an, eta kasu honetan aplikagarria den 6/1999 Foru Arauari jarraituz, balioa 0 zen, eta ondorioz, babes ofizialeko etxebizitza bada, ez luke aipatutako zerga ordaindu behar. Baina Udalak dituen datuetan etxebizitza hau ez dago babes ofizialeko etxebizitza gisa kalifikatuta. Datuetan akatsen bat dagoela uste du, eta ez duela ordainagiria ordaindu behar. Araudia berrikustea eskatu du, hobariak jasotzen dituzten beste erakunde batzuk badaudelako.

Azalpena,

Erreklamazio horretan, Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ezetsi izana da auzigaia. Horregatik, salbuespena onartzea ezetsi izana, eta truke bidezko azalera-eskubideari praktikaturako likidazioa zuzenbidearekin bat datozen aztertu da.

Azalera-eskubidea jabariaren gozamendu mugatzailearen eskubide erreala da, norberarena ez den lursail batean eraikuntza izateko ahalmena ematen duena. Horrela, legeak lurzoria eta eraikuntza bereiztea ahalbidetzen du, eta ondorioz jabeak ezberdinak izatea, eta baita bakoitzari dagokion zuzenbidea ere. Azalera-eskubidea eskualda daitekeen eskubide erreala da, eta ondorioz, Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren egitate zergagarria da, zerga-ordenantzako 5. artikulua xedatzen duen bezala: *Hiri-lur batek zerga-aldian irabazi duen balioa izango da zerga-gaia, hau da, hiri-lur horren jabaria mugatzen duen gauzekiko eskubideren bat eratu edota eskuz aldatu bitartean irabazitakoa*. 2010eko ekainaren 21ean formalizatutako bi finka horien trukea bi eskualdaketa direla ulertzen da, xxx-n dagoen finkarena eta xx finkarena. Hori dela eta, egintza horretan bi zergapeko egitate gertatzen direnez gero, erreklamazio egileari praktikatu zaio Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler, S.A. ren alde eginiko eskualdaketa dagokion likidazioa.

Finka hau babes ofizialekoa dela, eta ondorioz zerga honetatik salbuetsita dagoela arrazoitzen duen alegazioari dagokionez, zerga hori 16/1989 Foru

Arauek eta Udalaren zerga-ordenantzak arautzen dute. 16/1989 Foru Arauek ez die udalerriei kontzeptu horregatik zerga-hobaririk aitortzeko eskumena ematen, eta ondorioz, zerga-ordenantzak (salbuespenak arautzen dituen 6. artikulua eta hobariak arautzen dituen 7. artikulua) ez du jasotzen finkak babes ofizialeko kategoria izateagatik zerga ordaintzetik salbuetsita egon daitekeela dioen xedapenik; hau da, Donostiako Udalak ez du zerga-hobaririk aurreikusten horrelako kasuetarako. Erreklamazio egileari jakinarazi zaio babes ofizialeko kategoria horrek eragina duela Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (Foru Aldundiak kudeatzen duena), lursailaren katastro-balioa finkatzeko garaian, hots, Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren zerga-oinarria finkatzeko garaian. Hori da, hain zuzen ere, Foru Aldunditik bidali duten informazioa. Ondasun Higiezinaren gaineko datu-basean egiaztatuta da XXX katastroko zenbaki finkoa duen finkaren lursailari 45.107,78 euroko balioa esleitu ziola Foru Aldundiak, 2010ean, hau da, Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga sortu zen urtean. Horrenbestez, likidazioa zuzenbidearekin bat datorrela baietsi egin behar da.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

### **Ur-horniduragatikoko Tasa.**

- **762-2011 epaitza**, Ur-horniduragatikoko eta Saneamenduagatikoko Tasako 7.275,75 €-ko bahitura-diligentzia berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

Eraikinean bi ur-kontagailu daude: bata jarduerari dagokio eta bestea, etxebizitza bati. 1993an, jarduera bajan eman, eta aitaren izenean jarri zen. Aitak 2004 arteko ordainagiriak ordaindu zituen. Jarduera bajan eman zela kontuan hartuta, Udalak zaborra biltzeagatik zerbitzua eta Tasa ezetsi zuen, baina urarekin ez zuen gauza bera egin. 2004an, aita zendu zen, ordainagiri batzuk ordaindu gabe utziz. Udalak premiamendu-probidentziak abiarazi zituen, eta zendutako aitaren eta Alzheimer gaixotasuna duen amaren ondarearen bahitura-diligentzia ebatzi. Egoeraren berri izan zuenean, ordainketa atzeratzea eta ordaindu beharreko ur-tasa aldatzea eskatu zuen. Irtenbidea hartunea ixtea zela jakinarazi zioten. Hartunea 2010eko apirilaren 15ean itxi zen. Istripu bat izan zuen, eta horren ondorioz egun % 33ko minusbaliotasuna du. Ezin du lanik egin. Jarduera bajan eman zela kontuan hartuta, fakturak bidegabeak direla uste du, eta ur-tasak ezatea eskatu du, baita aurkatutako bahitura-diligentziari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarekiko duen zorra geroratzea.

Azalpena,

Erreklamazio horretan, jarduerarik ez duten eraikuntza horretako gunetan ur-tasari dagozkion zenbatekoak likidatzea zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertu izana da auzigaia. Betearazte-prozedura bidez, zorra ordaintzea betearazteko izapideen eraginetarako, premiamendu-fasean betetako datuak egiaztatu dira, espedientean jasota daudelako. Era berean, egiaztatu da bahiketa-fasea 2008ko urriaren 9an hasi zela, premiamendu-probidentzia batean 250,17 € atxiki zirenean, eta urte hauetan guztietan atxikipenak etengabe aplikatu direla bankuko bahituretan. Eragin horietarako, erreklamazio egileak tasaren likidazioa aztertzeko alegazioak soilik aurkeztu ditu, hau da, likidazioaren fase praktikoarekin lotuta daudenak, eta ez prozesu betearazleari aurka egiteko adierazitako arrazoi legalak aztertzeko.

Auzitegi Nagusiak 2004ko uztailaren 8ko epai bidez eman zituen aditzera aurkakotzeko arrazoiak zer kausengatik dauden mugatuta: *segurtasun juridikoaren funtsezko printzipio batek eragotzi egiten du erlazio juridikoaren subjektuen artean sor daitezkeen desadostasunak mugarik gabe eztabaidatzen aritzea. Hori dela eta, titulu egokiaren indarrez, betearazte-jarduera hasita, ezin*

*dira fase horretara eraman azalpen-fasean ebatzi behar izan ziren gaiak; hortaz, administratuak ezin ditu eragindako likidazioan bertan eragina izan dezaketen baliogabetasun-arrazoiak aurka jarri,*

Zorra geroratzeko eskaera zerga bilketarako bulegora bidali zen ebatz zezan. Irailaren 19an, zerga biltzaileak jakinarazi zuen interesdunak ez zituela emandako epeak bete, eta ondorioz, zerga zatikatzeko eskaera ez zegoela indarrean. Ez da bahiketaren aurkako alegazioen baiespena justifikatuko lukeen arrazoi horietako bat bera ere hauteman.

Erreklamazio egileak planteatzen duen auziari dagokionez, zerga-kuotak arautzen dituen zerga-ordenantzako 8. artikulua honako hau ezartzen du, likidatutako zenbatekoen inguruan: *Zerga-kuotak ordenantza honetako Eranskinean ezarrita daude, honako irizpide hauek oinarri hartuta:...sarea zaindu eta hobetzea: harpidetza kuota finkoa, hilekoa, etxe instalazioen arabera, eta kontagailuaren kalibrearen arabera gainontzeko erabileretan.*

Era berean, Uren Udal Zerbitzuaren Erregelamenduaren 93. artikulua honako hau xedatzen kuota finkoa edo zerbitzu kuotari buruz: *Erabiltzaileek erabilgarritasunagatik, aldian aldian eta berdin zerbitzua erabiltzen edo erabiltzen ez bada, ordaindu behar duten kopuru finkoa da.*

Horren arabera, honako hau ondorioztatu da: ur-tasari dagokionez, zerga-kuota horren egitate zergagarria ez da “kuota aldagarria edo kontsumo-kuota” osatzen duen zerbitzuan oinarritzen, ezta partikular baten erabilera-mailan ere, baizik eta honako hau kontuan hartzen dela: lokala existitzea, eta lokaleko titularrek uren udal zerbitzuaren instalazioen bitartez, ura erabiltzeko aukera izatea, hau da, ura erabiltzea teknikoki posible izatea beti.

Urez hornitzeko zerbitzuan baja hartu ondoren, Udalak uraren eta saneamenduaren zerbitzuan baja automatikoa ez emateari dagokionez, egiaztatu da Zerbitzuaren Erregelamenduak eta zerga-ordenantzak ez dutela xedatzen lokal bateko jarduerari baja ematen zaionean egin beharrekoa. Zerbitzuaren

Erregelamenduaren 9. artikulua abonatuak pertsonaren betebeharrak arautzen ditu, horien artean, bajaren berri ematea, eta honako hau xedatzen du: *Uraren hornidura zerbitzuan baja eman nahi duen pertsona abonatuak bere nahiaren berri Uren Udal Zerbitzuari idatziz emateko obligazioa dauka, eta, betiere, hornidura zerbitzuari amaiera eman nahi dion data adierazi behar du.* Horrenbestez, egokitzat jotzen da Udalak, berariazko eskaerarik jasotzen ez duen bitartean, hartunerik ez ixtea, eta abonatuak altan jarraitzen duela ustea, ura hornitzea premia biziko zerbitzutzat jotzen delako. Ondorioz, likidatutako kuotak zuzenbidearekin bat datozela adierazten da, ezin delarik udalaren jardunbidea auzipetu.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

- **779-2011 epaitza**, 2008ko otsailetik 2010eko maiatza arteko Ur-horniduragatiko eta Saneamenduagatiko Tasako 27.334,25 €-ko likidazio osagarriak berraztertze errekurtoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Ez zuen kontagailua geldirik zegoela jakin, Udalak horren berri eman zion arte. Merkataritza gunearen jabeak du kontagailura sarbidea. Ur Zerbitzuak bi urte behar izan ditu kontagailua geldi edo hautsita zegoela jakinarazteko. Ez da egia kontagailua aldatu eta sei hilabetera ur-ihesaren berri izan zutenik; 2. faktura jaso zutenean, akatsa izotzontzi batean zegoela egiaztatu zuten, eta berehala konpondu zuten. Enpresa ez da errudun ur-ihesaren berri ez izateagatik. Izan ere, Udalak ez ditu irakurketak egin, eta horregatik ez da akatsa antzeman 2008ko otsailetik 2010ko maiatza arte. Kontsumoaren balioespena egitearen alde agertu dira, eta hori kalkulatzeko matxura gertatu aurretiko epealdia (2006 eta 2007), edo errealitatearekin bat datorren beste edozein kontuan hartzea proposatu dute. Kalkuluak zehaztu ditu, eta adierazi du ikusle kopurua jaistearekin batera ur-kontsumoa ere jaitsi dela. Ur Zerbitzuarekin bilera eskatu du, zorraren ordainketa geroratzea, eta Ur-horniduragatiko eta Saneamenduagatiko Tasaren likidazio osagarriak deusezte.

Azalpena,

Kasu honetan Uren Udal Zerbitzuaren Erregelamendua aplikatu behar da. Eta egindako alegazioen eraginetarako, honako hau dio erregelamendu horren 79. artikulua: *Benetan izandako kontsumoa zein den jakitea ezinezkoa bada, neurgailuan matxuraren bat dagoelako, irakurketa egin nahi izan zen momentuan abonatuak pertsona ez zegoelako bertan edo Uren Udal Zerbitzuari egotz dakizkioken bestelako arrazoiengatik, kontsumoaren fakturazioa, denbora epe*



*berean eta aurreko urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da.*

Auzitegiko Idazkaritzak Uren Zerbitzuari txostena egitea eskatu zion udal-jarduerak eta matxuraren ebazpenari buruz interesdunak aurkeztutako txostena aztertzeko. 2011ko urriaren 13an, honako hau jakinarazi zuen Zerga Kudeaketako buruak: *Kontagailua hilean behin irakurtzekoa da, eta hauek dira 2006ko otsailetik 2010eko apirila arte fakturatu diren irakurketa bakarrak:...* Azken lau irakurketa horietatik, azken hiruak telefono bidez eman zituen abonatuak, dokumentu honekin batera eranstean den abonatuak kudeatzeko sistemaren dokumentuan ikus daitekeen bezalaxe. Hortaz, ez da egia XXX-k ez duela inoiz kontagailura sarbiderik izan... Aurkeztutako dokumentu berriak aztertuta, ur-ihesakatik errekamazioa onartu behar da,...ur-ihesakatik errekamazioa baietsi da, eta ondorioz, kontsumorik gabeko epealdietarako egindako balioespena aldatu behar da... Fakturaziorik gabeko epealdia 2008ko urtarrilean hasi zenez, data horren aurretiko kontsumoak erabiliko dira balioespen berria egiteko...

Horrenbestez, egiaztatutako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, alegazioak baietsi egin behar dira, txostenean jasotzen den proposamenaren arabera.

### **Zaborrak Biltzeagatiko Tasa**

- **201-2011 epaitza**, Zaborrak Biltzeagatiko Tasaren 84,87 €-ko sarrerak itzultzeko eskaera ezestearen aurka jarritako errekamazioa **baiesten duena**. Alegazioa,

Lokalaren azalera oker dago, izan ere, lokalak 94,82 m<sup>2</sup> ditu, eta ez 180 m<sup>2</sup>. XXX finkari buruz Hirigintzako Katastroan dauden datuak zuzentzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Plano bat aurkeztu du, eta adierazi du lokalak 94,82 m<sup>2</sup> dituela, eta ez 180 m<sup>2</sup>. Zaborrak Biltzeagatiko Tasaren 84,87 €-ko likidazioa ezatea eskatu du, eta 56,58 €-ko batengatik ordezkatzeari, lokalak ez dituelako 100m<sup>2</sup> baino gehiago.

Azalpena,

Zaborrak Biltzeagatiko Tasa arautzen duen zerga-ordenantzako 11. artikulua honako hau dio: *Kuotak Eranskinean datoz... Eranskinean adierazitako azaleraren arabera gain-karga, berriz, fisikoki bereiz den establezimendu edo lokal orori aplikatuko zaio, edozein eratako jarduera duela ere.*

2010eko apirilaren 8an, interesdunak ordainagiriaren aurkako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen. 2010eko irailaren 28an, Ikuskapeneko Udal Zerbitzuak errekamazio hori aztertu zuen, alegazioa onartu zuen, eta zergen

datu-basean azalera zuzentzea eta 2010eko ordainagiri guztiak zuzentzea proposatu zuen. 2010eko abenduaren 2an, aurkeztutako berraztertzeo errekurtsua ezetsi egin zen.

Interesdunak berraztertzeo errekurtsua 2010eko apirilaren 8an jarri zuen, borondatezko ordainketa-epearen barruan eta berraztertzeo errekurtsua jartzeko epearen barruan; 2010eko apirilaren 9an, 84,87 €-ko 2010/01 ordainagiria ordaindu zuen; 2010eko uztailaren 29an, 84,87 €-ko 2010/02 ordainagiria ordaindu zuen; Udalak 2010/03 eta 2010/04 ordainagiriak 56,58 €-ra zuzendu zituen. Hori guztia kontuan hartuta, alegazioa onartu behar da, aurkakotutako egintza zuzenbidearekin bat ez datorrela adierazi, errekurtsua ezetsi eta bidegabe ordaindutako diru-sarrerak (84,87 €-tik 56,58 € bitarteko aldea) itzultzea agindu.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa baietsi egin behar da.

- **529-2011 epaitza**, Zaborrak Biltzeagatiko Tasaren sarrerak itzultzeko eskaera ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

XX, XX, XX, XX dauden lokalei dagozkien Zaborrak Biltzeagatiko Tasaren likidazioan egindako akatsak zuzentzeko alegazioak ezesteari buruz: Lokal batean edukiontzi gehiago kobratzen ziren. Bestean, ordainagiriaren zati bat itzuli zen. Beste batean, zegozkionak baino metro gehiago likidatu ziren. Lokal horietako preskribatu gabeko aldietako ordainagiriak itzultzea eskatu zuen. Eskaera ezetsia izan zen, egintzak irmotzat jo zirelako. Ezesprenak adierazten du alta aldatu egin zela, baina interesdunak alegatu du lokalak ireki zirenetik ez dela lokalaren azalera eta edukiontzi kopurua aldatu; era berean, adierazten zuen idazkia aurkeztu aurretik ordaindutako ordainagiriak egintza irmoak eta onartuak direla.

Azalpena,

Aurkakotutako ezezpena aztertu da, Zaborrak biltzeko zerbitzuagatiko Tasak arautzen dituen zerga-ordenantzan altak gauzatzeari buruzkoa, eta ikusi da errekurtsuaren xedea ez dela lokal horiei tasaren erroldan alta ematea edota errolda aldatzea, baizik eta igorritako ordainagirien aurka jarritako berraztertzeo errekurtsuez ari garela. Ordainagiri horiek baietsi egin ziren, izan ere, lokal guztiek igorritako ordainagirien zati bat itzuli zuten.

Preskribatu gabeko ordainagiriak itzultzea bidezkoa den ala ez onartzeko eraginetarako, ordainagiriak zuzentzeko edo zati batean itzultzeko baliatutako arrazoia zuzenbidezko akastzat edo izatezko akastzat jotzeari buruz, onarpena justifikatzen duen arrazoian erreparatu besterik ez dugu: akatsak azalera (m2-

tan) edo akatsak edukiontzien kopuruan. Gipuzkoako Zergen Foru Arauaren 227. artikulua akatsen zuzenketa arautzen du: *Erreklamazioaren egintza edo ebazpena eman duen organoak akats materialak, gertatzezkoak edo aritmetikoak zuzenduko ditu edozein momentutan, beti ere preskripzio epea igaro ez bada.* Udalak, erreklamaturako ordainagiriaren zati bat itzuli zuen.

Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia doktrinak honako hau ezartzen du: *akats materiala edo egitatezko akatsa nabarmena, agerikoa eta eztabaidaezina da, eta, berez argitzen du auzia, bestelako arrazibiderik gabe...*, ondorioz, *akats materialak edo egitatezko akatsak zuzentzeko prozedura aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek eman behar dira nahitaez: 1) akats izenetan, datetan, eragiketa aritmetikoetan edota dokumentuen transkripzioetan; 2) akatsa antzematea, hori antzematen den administrazio-espeditenteko datuak soilik kontuan hartuta; 3) akatsa agerikoa eta argia izatea, aplikagarriak diren arau juridikoetara jo behar gabe; 4) administrazio-egintza irmo eta onartuak berrikusteko prozesua ofizioz ez hastea; 5) egintzaren zentzuan funtsezko alteraziorik ez gertatzea (ez baitago akats materialik hura antzemateko iritzia eman behar bada, edota kalifikazio juridikoko eragiketaren bat gauzatu behar bada); 6) administrazio-egintza baten subsistentziarik ez jasatea (hau da, egintzaren ezezpena edo berraztertzea ez eragitea, eskubide subjektiboen sortzaile gisa, beste oinarri batzuetan oinarrituko den eta kaltetuarenganako bermeak jasotzen ez dituen administrazio-egintza berririk ez sortzea; izan ere, akatsa zuzenduko duen administrazio-egintzak zuzendutako egintzaren eduki berbera (xedapenak, izendapenak eta ebazpenak) izan behar du, eta Administrazioak ezin du, ofizioz zuzenketa egiteko duen ahalmenaren babesean, benetako berrazterketa estali, horrek agintea desbideratzea eragingo lukeen "fraus legis" bat eragingo lukeelako); eta 7) irizpen murriztaile sakon bat aplikatzea.*

Kasu honetan, aztertutako eskakizun gehienak ematen dira. Izan ere, egiaztatu da Udalak akats bat egin zuela, bai lokalen azalera zehazterakoan eta baita edukiontzien kopurua ezartzerakoan ere, aipatutako lokalei dagozkien zaborra biltzeagatik Tasaren ordainagiriak likidatzerakoan. Metro koadroak eta edukiontzi kopurua egiaztatu egin dira, eta akats horiek, administrazio-egintza idatziz jasotzerakoan gertatutakoak, materialtzat edo izatezko akastzat jo behar dira, Auzitegi Nagusiak ebazten duen bezala.

41/2006 Foru Dekretuak – Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzen duena— xedatzen duenez, *okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea honako kasuetan aitortu ahal izango da: ...erreklamazio ekonomiko-administratibo baten indarrez.* Hortaz, zenbatekoa itzultzeko eskubidea aitortu behar da ebazpen honetan. Eskubide horrek lau urteko epean preskribituko du, Gipuzkoako Zergen Foru Arauaren 65. artikulua xedatutakoari jarraiki. Lau urteko epearen hasiera ezartzeko 66. artikulua xedatzen duenari jarraituko zaio.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa baietsi egin behar da.

## **Garabi Tasa.**

- **324-2011 epaitza**, Garabi Tasaren 114,32 €-ko sarrerak itzultzeko eskaera ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

Lanera berandu ez iristeagatik zonalde horretan aparkatu behar izan zuenaren egoera pertsonala. Interesdunak ez zekien bertan aparkatzea debekatuta zegoenik, Donostiara iritsi berria zelako. Garabi Tasa itzultzea eskatu du, langabezia dagoelako.

Azalpena,

XXX ibilgailuarekin trafikoko arau-hauste bat egin zuen ustezko arduradunari trafikoko zehapen-espedita abiarazi zitzaion, ibilgailua zamalanetarako gunean aparkatzeagatik. Interesdunak ez zuen zehapen irmoa ordaindu, eta ondorioz, betearazte-prozedura abiarazi zen, XXX premiamendu-probidentzia ebatziz. 2010eko abenduaren 31n, interesdunak Garabi Tasaren diru-sarrerak itzultzea eskatu zuen. 2011ko urtarrilaren 24an, idatzi hori ezetsi egin zen, berraztertze errekurtso gisa.

Interesdunak 114,32 €-ko Garabi Tasa itzultzea eskatu duenez, zerga horren egitate zergagarria egiaztatuko da, eta baita zuzenbideari egokitzen zaion ala ez.

Ibilgailuak Bide Publikotik kentzeagatik Tasa arautzen duen zerga-ordenantzako 2. artikulua gabaria zein kasutan jarduten duen adierazten du: *...egitate zergagarriaren xedea honako hauek dira: Ibilgailuak geraraztea: Trafikoari buruzko Legearen eta Zirkulazioko Erregelamenduaren xedapenak ez betetzearen ondorioz...*

Interesdunak aitortu du ibilgailua zamalanetarako gunean aparkatu zuela. 1428/2003 Errege Dekretuaren 94.2c. artikulua arabera, debekatuta dago ibilgailu bat zamalanetarako gunean aparkatzea. Hortaz, eta arestian aipatutako zerga-ordenantza ikusita, ibilgailua bide publikotik kendu izana zuzenbidearekin bat datorrela ebatzi behar da.

Ordaindutako 114,32 €-ko Tasa itzultzeko eskaerari, eta zuzenbideko akatsen ondoriozkoak (akats horien pean erori da likidazio egintza) diren sarrerak itzultzeari dagokionez, sarrera horiek itzultzeko, lehendabizi, aipatutako likidazio egintzari aurka egin beharko zaio nahitaez, deusezta edo alda dadin. Horren emaitzatik etorriko da bidegabe ordaindutakoa itzultzea. Interesdunak aurka

egin zion likidazio egintzari, eta bide administratiboak ezetsi egin zuen eskaera hori.

Gipuzkoako Zergen Foru Arauaren 228. artikulua sarrerak zein kasutan itzul daitezkeen xedatzen du, hala nola: *zerga zorrak bi bider ordaindu badira; ordaindu beharreak baino gehiago ordaindu bada; preskribitzeko epeak igaroz geroztik sarrerarik egin bada; eta zerga alorreko araudian hala agintzen bada.* Egiaztatu da kasu honetan ez dela horrelako baldintzarik ematen. Zergen Foru Arau Orokorra, administrazio bidetik berrikustearen arloan, garatzen duen 41/2006 Foru Dekretuaren 25.1. artikulua honako hau dio: *Okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea onartu ahal izango da: ...erreklamazio ekonomiko-administratibo baten indarrez...* Ebazpen horretan garabiaren egintza zuzenbidearekin bat datorrela adierazten dela ikusita, eta dirua itzultzeko eskaera onartzea ahalbidetzen duten arestian aipatutako baldintzak ematen ez direnez, Tasaren sarrerak itzultzeko eskaera ezetsi egin behar da.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

- **355-2011 epaitza**, Garabiaren Zerbitzuagatiko Tasaren 103,50 €-ko sarrerak itzultzeko erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

Ez zaie jaramonik egin ezarritako isunaren aurka egindako alegazioei. Ez zaio iruditzen trafiko arauak hautsi zituenik. Ziklomotorra ibira mugitua izan zen. Bestetik, eta udaltzainen batek eta garabiko langileek aitortu ziotenez, kale horretan oso ohikoa da ziklomotorra mugitzea. Berak ez zuen nahi motorra bertan aparkatuta gera zedin. Isuna ezeztatzea eskatu du eta ordaindutako garabiaren zenbatekoa itzultzea.

Azalpena,

Berraztertze errekurtsoa epetik kanpo jartzeagatik ezeztatu egin zen. Horri dagokionez, Isun Zerbitzuak entregatutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da premiamendu-probidentzia 2011ko urtarrilaren 18an jakinarazi zela, eta interesdunak berraztertze errekurtsoa 2011ko urtarrilaren 28an jarri zuela, hau da, erabakiari aurka egiteko ezarritako hilabeteko epea bukatu aurretik. Hortaz, berraztertze errekurtsoa ez zen epetik kanpo jarri, eta ondorioztatu behar da errekurtsoa ezezte beste arrazoi batean oinarritu behar izan zela: aurreko egintzen jakinarazpenean.

Betearazte prozeduraren fase honetan, erreklamazioa egin duen aldeak martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 171. artikuluan finkatutako aurkakotzeko arrazoi Tasatuak soilik har ditzake aintzat.

Garabiarekin emandako zerbitzuagatiko Tasak arautzen dituen zerga-ordenantzako 2. artikulua honako hau dio: *ibilgailua hiriko bideetatik jaso eta biltegiara eramatea...aparkatze mugatuko aldeetan gaizki aparkatuta badago...* Interesdunak egindakoak izatezko alegazioak dira, eta une honetan ezin da jakin egiazkoak diren ala ez. Alegazio horiek ebaztea isun zerbitzuari dagokio. Hau da, interesdunak eta isuna jarri zuen udaltzainak ezin dute jakin, ezta egiaztatu ere, hirugarren batek motorra aparkatuta zegoen lekutik mugitu eta debekatutako leku batean jarri zuen ala ez. Egiaztatu daitekeen gauza bakarra hau da: udaltzainak motorra ibian aparkatuta zegoela ikusi zuen, eta hori zigorgarria da.

2. artikulua kasu honetan aplikagarria da. Ez dira isuna ezeztatzeko erreklamazioa baietsiko luketen baldintzak alegatu edo gertatu, arestian

aipatutako 171. artikuluan jasotzen direnak. Eta izatezko alegazioek ez dute hutsaldu udaltzainak isuna jartzeko proposamena. Horregatik guztiagatik, isuna deuseztatzeko eskaera ezetsi behar da.

Egoera horrek garabiagatik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskaera baldintzatzen duela ikusita, Zergen Foru Arau Orokorraren 228. artikulua okerreko sarrerak itzultzeko ezartzen duena kontuan hartuko da:

*Okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea honako kasuetan aitortu ahal izango da: ...erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenen indarrez...* Erreklamazio honen epaitzak ezarritako isuna bidegabea dela adierazteko nahia ezezten duela ikusita, Garabi Tasa itzultzeko eskaera ezetsi behar da.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

- **389-2011 epaitza**, Garabiaren Zerbitzuagatiko 90,37 €-ko Tasa itzultzeko eskaera ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Ibilgailua aparkatu zuen lekuan aparkatzeko baimena du, eta baimen horren egiaztatzea ibilgailuaren haizetakoan jarrita dauka. Ez ditu gertakariak inoiz ukatu, toki horretan aparkatzeko baimena zuelako. Garabiari dagokion zenbatekoa itzultzea eskatu du.

Azalpena,

Auzitegiko Idazkaritzak Mugikortasuneko Udal Zerbitzuari interesdunak jarritako alegazioen berri ematea eskatu dio. Eta txostena eskatu dio 2009ko irailaren 11n, XXX jaun/andrea, XXX helbidea duena, gune horretan aparkatzeko egoiliar txartelaren titularra zen egiaztatzeko.

Udaltzainak garabi-zerbitzua eskatu zuen, haren ustez, 17/2009 arauko 39.4. artikuluan xedatutakoa urratu zelako, eta 52090/2008 zehapen-espedita abian jarri zuen.

2009ko martxoaren 10ean, baimenik gabeko egoiliarrentzako erreserbatutako aparkaleku batean aparkatzeagatik ezarritako 52090/2008 isuna ezeztatzen zuen ebazpena eman zuen Udalak.

2011ko apirilaren 19an, Mugikortasuneko Udal Zerbitzuak egiaztatu zuen interesdunak 1-1 sektorean, XXX kaleari dagokiona, aparkatzeko baimena zuela. Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren 228. artikulua okerreko sarrerak itzultzeko prozedura ezartzen du. Artikulu horren 2). atalak xedatzen duenez, okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea erreklamazio ekonomiko-administratiboan ebazpen baten indarrez aitortu daiteke.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, erreklamazioa baietsi egin behar da.

- **437-2011 epaitza**, Garabiaren Zerbitzuagatik 88,43 €-ko Tasa itzultzeko erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

2007ko abuztuaren 7an, ibilgailua XXX kalean aparkatu zuen, 22:15ean, gune urdinean eta bi motorren artean. Bertan, ez zegoen aparkatzea debekatuta zegoela adierazten zuen seinalerik. Egoiliarra izanik, larrialdiren bat gertatuz gero abisua ematea bazegoela alegatu du, eta ez zela beharrezkoa garabiarekin ibilgailua eramatea. Garabi-zerbitzuagatik ordaindutako 88,43 euroak itzultzea eskatu du, ibilgailua ondo aparkatuta zegoelako.

Azalpena,

2007ko abuztuaren 7an, trafikoko arau-hauste bat gertatu zen, eta haren ondorioz, trafikoko zehapen-espedita bat abiarazi zitzaion ustezko arduradunari. Ustezko arau-haustea egin zuen ibilgailua bide publikotik kendu eta udal biltegira eraman zuen garabiak.

Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra, administrazio bidetik berrikustearen arloan, garatzen duen 41/2006 Foru Dekretuaren 25. artikulua honako hau dio: *okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea honako kasuetan aitortu ahal izango da: Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren 228.1 artikuluan adierazten diren kasuetan... ..ebazpen ekonomiko-administratiboaren indarrez... 25. artikuluan*

jasotzen diren arrazoi horiei dagokienez, Tasa ordaintzea eragin zuten gertakariak aztertu dira.

Erreklamazioaren espedientean Aparkamendu Ataleko buruak egindako eta 2007ko abuztuaren 7an, 9:38an, Udaltzaingoari bidalitako txosten bat jasota dago. Txosten horrek zera dio: *Saneamendu sareko kutxatilkak libratu ahal izateko aparkalekua erresebatzeko eskaera: Kendu edo erresebatuko diren metroak behar bezala seinaleztatu behar dira bertan aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duten seinaleak dituzten hesiekin, lanekin hasi baino 24 ordu lehenago gutxienez, eta aparkatzerik balego, horretarako ordutegia adieraziz. Erresebatutako gunean aparkatuta dauden ibilgailuak mugitu egingo dira edo udal biltegiara eramango dira.*

Espedientean 2007ko abuztuaren 7an, 12:45ean, egindako kontrol-orri bat dago, eta bertan, erresebatutako gune horretan aparkatuta zeuden hamar ibilgailuen zerrenda jasotzen da (guztiak behar bezala identifikatuta, matrikula bidez). Orri horren arabera, ibilgailuak hortik kentzeko abisua eman behar zitzaient jabeei. Hortaz, egia da XXX interesdunaren ibilgailua ez zegoela aparkatuta seinaleak jarri zituzten unean, eta hori kontuan hartuta, ondorioztatu behar da egun horretan erreseba jada seinalizatuta zegoenean aparkatu zuela (nahiz eta

egoiliar txartela izategatik, bestetan bertan aparkatzeko inolako debekurik ez izan).

Ez da Gipuzkoako Zergen Arau Orokorraren 228. artikuluan jasotzen diren arrazoi bat bera ere ematen (zerga zorra bera bi bider ordaintzea; administrazio egintza baten edo autolikidazio baten ondorioz ordaindu beharrekoa baino gehiago ordaintzea; preskribitutako zerga zorrak ordaindatzea), ezta Foru Dekretuaren 25. artikuluan jasotzen direnak ere. Horrenbestez, Tasaren zenbatekoa itzultzeko eskaera ezetsi egin behar da.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazio honetako sarrerak itzultzeko eskaera ezetsi egin behar da.

- **660-2011 epaitza**, trafiko isunaren zenbatekoa, Garabi Tasaren eta taxiaren gastuak, guztira 259,40 €, itzultzeko erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

Minusbaliatuentzako aparkatzeko txartelaren titularra da, eta behar bezala aparkatu zuen. Isuna eta garabia ordaindu behar izan zituen ibilgailua eraman ahal izateko. Ordaindutako zenbatekoak itzul dakion eskatu du.

Azalpena,



Salaketa minusbaliatuei erreserbatutako gune batean aparkatzeagatik egin zen. Auzitegiko Idazkaritzak Udaltzainari txostena eskatu dio ibilgailuan aparkatzeko txartela jarrita zegoela jasotzen duen alegazioa aztertzeko.

2011ko martxoaren 22an, zehapen-espeditentea abiarazi zuen udaltzainak zera jakinarazi du: *txartela ez zegoen ikusteko moduan jarrita, eta hori ezinbesteko eskakizuna da, ezinduentzako aparkatzeko txartelen erabilera arautzen duen 256/2000 Dekretuaren 4. artikulua arabera. Udaltzainak ez zuen txartela ikusi. Eta egindako salaketa berretsi du.*

Ondorioz, eta udaltzainak salaketa berretsi duenez, garabiaren parte-hartzea eragin zuen zehapen-espeditente hori abiaraztea zuzenbidearekin bat datorrela ebatzi behar da. Aparkamenduari buruzko araudia hautsi zen, eta ondorioz, udaltzainak garabi-zerbitzua eskatzeko ahalmena zuen, baita ibilgailua bide publikotik kentzea agintzeko ere.

Trafikoko isunaren zenbatekoa itzultzeari dagokionez, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra, administrazio bidetik berrikustearen arloan, garatzen duen 41/2006 Foru Dekretua aztertu da. Dekretu horren arabera, *okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea honako kasuotan aitortu ahal izango da:...edo erreklamazio ekonomiko-administratibo baten ebazpenaren indarrez.* Ebazpen horretan ez dira alegazioak onartu, eta gauzatutako jarduerak zuzenbidearekin bat datozela baietsi egin da. Horrenbestez, ez da zenbatekoa itzultzeko eskubidea aitortu behar.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

- **963-2011 epaitza**, XXX isunaren eta Garabi Tasaren zenbatekoa, 168 € guztira, itzultzeko erreklamazioa **ezesten duena**.

Alegazioa,

2011ko uztailaren 23an, alokairuan hartutako ibilgailua XXX kalearen ezker aldean utzi zuen. Alegazio honekin batera aurkezten duen tiketa jarri zuen. Ez zuen ikusi aparkatzea debekatuta zegoela adierazten zuen seinalerik, eta beste ibilgailu batzuen atzean aparkatu zuen. Garabiak bere ibilgailua eraman zuenean, lurrean aparkatzea debekatuta zegoela adierazten zuen abisua ikusi zuen. Defentsa-gabezia alegatu du, atzerritarra izatea, aparkatzea debekatuta zegoela adieraziko duen seinalerik ez egotea, eta ibilgailua inolako abisurik eman gabe erretiratu izana. Kontratuaren, ordainketen eta bestelakoen fotokopiak aurkeztu ditu, eta baita itzulketa egiteko kontu korrontearen zenbakia ere. Garabi Tasaren 126 €-ak eta isunaren 42 €-ak itzul dakion eskatu du.

Azalpena,

2011ko uztailaren 23an, gune horretan ari zen udaltzainak salaketa jarri zion trafikoko arau-hauste bat egin zuen ustezko arduradunari, eta garabi-zerbitzuari abisua eman zion ibilgailua biltegiara eraman zezan. Izan ere, ibilgailua zirkulatzeko errailean aparkatuta zegoen.

Auzitegi honek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 137. artikuluan eta Donostiako Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak ebazteko Araudiaren 1. artikuluan ezarritako eskumenak ditu. Gauzak horrela, Donostiako Auzitegi Ekonomiko Administratiboak honako eskumena du: *zergak aplikatzearen eta zerga-zehapenak ebaztearen inguruan egiten diren erreklamazioak ezagutzea eta ebaztea, eta zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk biltzea*. Egindako alegazioei dagokienez, betearazte prozesuan, hau da, zehapen-prozedura guztia bukatu denean, Auzitegiaren izaera juridiko berraztertzailearen helburua da aurkakotzen den administrazio-jarduera zuzenbidearen arabera den edo ez den egiaztatzea. Hori dela eta, jardun hori legezkoa den fiskalizatzen da, eta horrek kanpoan uzten ditu interesdunetarako eskubideen egokitasunari edo aukerari buruzko iritzirik, baita ekitateari edo moralitateari buruzko balorazioak ere. Ezin du iritzirik eman Udalaren lanaren

egokitasunari buruz, banaketa-justiziari buruz, koherentziari buruz, eta, oro har, aplikatutako irizpide politikoei eta teknikoei buruz.

Isun Zerbitzuari txostena eskatu zaio. Zerbitzu horrek, zerbitzuan erabiltzen diren planoak eta mapak, eta interesdunak ibilgailua aparkatu zuen bide publikoa eta zonaldea ikusi ondoren, adierazi du ibilgailua *zirkulatzeko errailean aparkatuta zegoela*, Hondarribia kaleko bide publiko horren ezker aldean aparkatuta zeuden gainontzeko ibilgailuak bezalaxe; eta, *lekua edota beste hirietako zirkulazioa zein zentzutara doan ez jakitea ez dela aitzakia, eta ez duela inor indarrean dagoen legeria betetzeaz salbuesten*. Horrenbestez, salaketa bidezkoa dela berretsi egin behar da.

Salaketa egin ondoren, garabia ibilgailua bidetik kentzeko agindua eman izana zuzenbidearekin bat datorren ala ez ebazteko, garabi-zerbitzuagatik Tasak arautzen dituen zerga-ordenantzako 2. artikulua xedatzen duena ikusi da: *Egitate zergagarriaren xede izango da: Ibilgailuak hiriko bideetatik jaso...*

Erreklamazioak ez du eztabaidan jarri udaltzainak estazionamendu horrek Zirkulazioari buruzko 1428/1983 Errege Dekretuaren 94.1 c) artikulua hautsi zuela adierazi izana. Horrenbestez, alegazioak ezetsi egin behar dira, gertakariei buruzkoak guztiak, eta ez salaketa abiaraztearen eta emandako zerbitzuaren zuzenbideko oinarriari buruzkoak.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

## **Jabaria Hesiekin Okupatzeagatiko Tasa.**

- **577-2011 epaitza**, Jabaria Hesiekin Okupatzeagatiko Tasaren 50.365,19 €-ko likidazioa zuzentzeko erreklamazioa **zati batean baiesten duena**.

Alegazioa,

Berraztertze errekurtsoan obraren arkitekto-zuzendariaren txostena aurkeztu zen, eta bertan, honako datu hauek jasotzen dira: aldamiorekin okupatu ziren tarteak, aldamiok noiz jarri eta kendu ziren, tarte bakoitzaren luzaera, eta okupatutako azalera. Datu horietatik ondorioztatu den zenbatekoa baino askoz ere baxuagoa zen igorritako ordainagiria, eta errekurtso horri buruzko ebazpenak ez ditu jasotako datuak zalantzan jartzen. Zerbitzuak egindako txostenean zaintza zerbitzua soilik egiaztatzen da... Andamios XX enpresak aurkeztutako dokumentuetan eta obraren arkitekto-zuzendariak egindako ziurtagirian jasotzen diren azalerak erabat desberdinak dira. Datak ere oker daude. Obraren agindu-liburuaren arabera, Arkitektoen Elkargo Ofizialaren zigilua duenak, lehendabiziko obra-aginduak 2009ko otsailaren 10ekoak da. Akta horrek, eta Eusko Jaurlaritzako Lana eta Seguratasunaren zuzendaritzan aurkeztutako obraren alde aurretiko abisua, argi eta garbi zehazten dute aldamia zein egunetan in statu zen. Emaita 32.837,84 €-koa da.

Azalpena,

Likidazioaren eta aurkatutako udal ezezpenaren oinarritzat, jabari publikoaren okupazioak berrikusten dituen BPG enpresak egindako txostena hartu zen, eta baita berraztertze errekurtsoa aurkeztu ondoren egin zen berrikusketa ere.

BPG-k 2011ko uztailaren 11n jaulkitako txostenean, Udal Zerbitzu Teknikoaren sinadura duena, obraren fase ezberdinak eta okupazioak erakusten dituzten 29 argazki jasotzen dira...neurketa bi fasetan egin da, eta neurketa guztiak azalera txikiagoa eman du...Horregatik, aplikatutako Tasa zuzentzea proposatu da.

Udal Jabari Publikoa Erabiltzeagatiko Tasak arautzeko zerga-ordenantzako 3. artikuluan, honako hau ezarria da sortzapenari dagokionez: *Tasak ordaindu behar dira udal jabari publikoa eta erabilerak publikorako izendatutako beste ondasun batzuk ere erabili edo bereziki ustiatzen hasten denean, alegia, lizentzia ematen den unean bertan, aurretiaz horrelakorik eskatu bazen*. Modu berean, ondoriozta daiteke erabilerarekin sortzen dela Tasa ordaintzeko beharra; hori dela eta, aldamia edo hesia jarrita dauden datuak harantzago –bat etor daiteke alokairuaren fakturekin–, hesiak jabari publikoko lurzoruan uzten direnetik hasi beharko da zenbatzen aldia. Argazkietan ikus daitekeen bezalaxe, jabari publikoko lurzoria okupatzen ari da.

Ondorioz, eta XXX-ko udal txosten berriak jabari publikoa okupatutako epealdi guztietan ateratako argaziak jasotzen dituela ikusita, datu horiei lehentasuna eman behar zaie erreklamazio egileak emandakoen gaineratik. Izan ere, udal txostenean adierazten denez, txostena egiteko proiektuaren datuak kontuan hartu zituzten, eta ez obra ikuskatu zenean *in situ* hartutakoak.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, erreklamazioa zati batean baietsi egin behar da.

- **639-2011 epaitza**, Jabaria Hesiekin Okupatzeagatiko Tasaren 11.152,48 €-ko likidazioa zuzentzeko erreklamazioa **ezezten duena**.

Alegazioa,

Jabaria hesiekin okupatzeagatik likidatutako datak oker daude. 96 egun izan ziren, eta ez 73. Honako dokumentu hauek gaineratu ditu: 2010eko otsailaren 23ko hesi-onarpenaren akta, hesiak 2010eko maiatzaren 7an kendu zirela jakinarazten duen enpresaren gutuna, eta 73 okupazio-egun izan zirela ondorioztatzen duen kalkulua. Likidazioa deuseztatzea eskatu du, eta 270 m. eta 73 egunekin kalkulaturako 8.498,08 €-ko likidazioarekin ordezkatzeari.

Azalpena,

Auzitegiko Idazkaritzak alegazioak berrikustea eskatu zien bide publikoetako zerbitzuko udal teknikariei. Horiek, BPG-k 2011ko uztailaren 13an jaulkitako txostenean, Udal Zerbitzu Teknikoak sinatu zuena, honako hau esan zuten: *Erreklamazioa berrikusi da...eta jatorrizko okupazioari buruzko txostenean jasotzen den neurketa, 2010eko irailaren 30ekoa, zuzena da.*

*2011ko maiatzaren 10ean aurkeztutako beste txosten batean, osoagoa, okupazioaren argazkiak jasotzen dira, zehazki, 2010eko otsailaren 3an hesiak bide publikoan instalatzeko muntaketa-fasea erakusten duen bat. Argazki horretan, instalazioa nahiko aurreratua zegoela ikus daiteke. Hori dela eta, okupazioaren hasiera-data 2010eko otsailaren 1a dela ezarri behar da. Hesi-onarpenaren aktaren data geroagokoa da beti, instalazioa bukatuta dagoenean ematen baita, ikuskatzeko. Kasu honetan, akta 2010eko otsailaren 23koa da, eta ezin da inolaz ere data hori okupazioaren hasiera-datatzat hartu. Horregatik guztiagatik, alegazioak ezeztea proposatzen da.*

Udal Jabari Publikoa Erabiltzeagatiko Tasak arautzeko zerga-ordenantzako 3. artikuluan, honako hau ezarria da sortzapeanari dagokionez: *Tasak ordaindu behar dira udal jabari publikoa eta erabilera publikorako izendatutako beste ondasun batzuk ere erabili edo bereziki ustiatzen hasten denean, alegia, lizentzia ematen den unean bertan, aurretiaz horrelakorik eskatu bazen. Modu berean, ondoriozta daiteke erabilerarekin sortzen dela Tasa ordaintzeko beharra; hori*

dela eta, aldamia edo hesia jarrita dauden dataz harantzago, materiala jabari publikoko lurzoruan uzten direnetik, material hori kolokatzen eta aldamia instalatzen hasten denetik hasi beharko da zenbatzen aldia. Udal Zerbitzu Teknikoak 2010eko otsailaren 3 eta 23ko, apirilaren 23ko eta maiatzaren 10eko argazkiak eman ditu.

Ondorioz, eta 2011ko uztailaren 13ko udal txosten berriak jabari publikoa okupatutako epealdi guztietan ateratako argazkiak jasotzen dituela ikusita, datu horiei lehenetsuna eman behar zaie erreklamazio egileak emandakoen gainetik, argazkiak *in situ* hartu zirelako, egun ezberdinetan egindako ikuskapenetan.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

- **1071-2011 epaitza**, Jabaria Hesiekin Okupatzeagatiko Tasaren 33.343,71€-ko likidazioa zuzentzeko erreklamazioa **ezezten duena**.

Alegazioa,

Neurketa oker dago, eta hori egiaztatzeko, eraikinaren fatxadaren eta haren ondoko pasabidearen plano bat aurkeztu dute. Plazaren erdian jarritako etxetxo kontratistak langileentzat jarri zuela alegatzen dute, inoren baimenik gabe; eta okupazio hori eta okupatutako egunak likidazioan sartu dira. Plazaren fatxada deskribatu dute; deskribapen horretan malda bat, pasabide bat eta desnibel bat aipatzen dira, eta horrelako azaleran ezinezkoa da okupaziorik egitea. Likidazioa deuseztatzea, eta azalera zuzenduko duen beste likidazio batekin ordezkatzeari eskatu dute.

Azalpena,

Erreklamazio horretan, zergarekin karga daitekeen okupatutako azaleraren eta epealdiaren kalkulua berraztertzeko errekurtsioa ezetsi izana da auzigaia, eta hortaz, errekurtsioa ezestea zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertu da. Ezeztenaren oinarritzat hartu zen Bide Publikoetako Zerbitzuak 2011ko abuztuaren 25ean egindako txostena. Txosten hori, aldi berean, okupazioaren berri eman zuen udal kontratistak egindako zaintza-txostenean oinarritu zen. Zaintza-txosten horren arabera, Soldaduen Plazaren izkin bateko okupazioa aurreikusitakoa baino handiagoa zen, eta gehiegizko okupazio horren erantzulea lizentziaren titularra zela adierazten zen. Okupazioaren datak argazkiekin egiaztatu ziren (argazki guztiak 2010ekoak dira eta guztiek dute data jarrita). Aurkeztutako alegazioak eta planoak ikusita, Auzitegiko idazkaritzak txosten berri bat igortzea eskatu zion Udal Zerbitzu Teknikoari. 2011ko azaroaren 28an, Udal Zerbitzu Teknikoak lehen txostenean esandakoa berretsi zuen, bai neurketari dagokionez, eta bai lizentziaren titularrak okupatu zituen egunei dagokienez. Udal Zerbitzu Teknikoak zera dio: *Zerbitzu tekniko honek jakinarazten du XXXX kaleko*

*okupazio-txostena zuzena dela. 363 m<sup>2</sup> neurtu ziren, eta neurketa zuzena da; metro gehiago izango lirateke zaintza-zerbitzuak gehiegizko okupazioa erretiratzeko abisua eman izan ez balu. Gehiegizko okupazio hori ez zegoen proiektuan jasota, ezta onartua ere. Bestetik, obrako etxetxea kentzea ere agindu zen. Etxetxea obra inguratzen zuten hesien barruan egon zen obrak iraun zuen denbora guztian, eta horrela kontabilizatu da. Aldamio-onarpenaren argazkia, 10-06-01ekoa, eta 389 m<sup>2</sup>-ko onarpenaren neurketa erasten dira,...*

Udal Jabari Publikoa Erabiltzeagatiko Tasak arautzeko zerga-ordenantzako 3. artikuluan, honako hau ezarria da sortzapenari dagokionez: *Tasak ordaindu behar dira udal jabari publikoa eta erabilerak publikorako izendatutako beste ondasun batzuk ere erabili edo bereziki ustiatzen hasten denean.* Modu berean, ondoriozta daiteke erabilerarekin sortzen dela Tasa ordaintzeko beharra. Bestetik, 5. artikulua ..... zergapeko gisako subjektu pasibo izango direla ezartzen du. Obrako kontratistak egindako okupazioa obraren onuradun den erkidegoaren izenean igorritako Tasaren likidazioan zenbatzen da. Udal txosten tekniko berri honek alegazioei erantzuten die, plazako eskaileren zonaldeko argazkiak jasotzen ditu, eta okupazioen datak eta azalera ezberdinak zehazten ditu. Horiek guztiek obra ikuskatu zenean, 2011ko martxoaren 10ean, egindako txostena berresten dute. Horrenbestez, alegazioak ezetsi egin behar dira.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

### **Hirigintzako zehapena.**

- **446-2011 epaitza**, 12.000 €-ko hirigintzako zehapenaren likidazioa berraztertzeke errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Udalak zehapen-prozedura abiarazi zuen obrak lizentziarik gabe hasteagatik, eta obra horiek ez zetozelako bat planeamenduarekin. Udalak 12.000 €-ko isuna jarri zion. Interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri du errekurtsua ezestearen aurka. Isuna nulua dela alegatu du, likidazioa bidali zenean eta bahiketa-premiamendua ebatzi zenean isuna ez zelako irmoa, izan ere, berraztertzeke errekurtsua oraindik erantzun gabe zegoen.

Azalpena,

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 138.3. artikulua xedatzen duenez, *ebazpena betearazlea izango da administrazioaren bidea agortzen duenean.*

Likidazioa jakinarazi zen unean isuna ez zela irmoa dioen alegazioari dagokionez, egiaztatu da XXX likidazioa 2009ko irailaren 21ean jakinarazi zela; egiaztatu da

2009ko uztailaren 9ko isunaren ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua 2009ko urriaren 23an ezetsi zela, eta erabaki hori 2009ko abenduaren 1ean jakinarazi zela.

Hau da, 2009ko abenduaren 1ean jakinarazi zen errekurtsua ezetsi zela, eta horrekin zehapen-espeditentearen administrazioaren bidea agortu zela. Zehapen-aginduari zegokion likidazioa data horretatik aurrera egin zitekeen, eta hortaz, onartu egin behar da aurkatutako likidazioa isuna irmoa ez zenean egin zela dioen alegazioa.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, erreklamazioa baietsi egin behar da, ebatzitako premiamendu-probidentzia deuseztatu, eta espeditentea atzera jo 12.000 €-ko likidazioaren jardunera.

### **Ingurumeneko zehapena.**

- **222-2011 epaitza**, 120 €-ko gizabideko zehapenaren likidazioa berraztertzeke errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Gizabideko arau-haustea ez dago frogatuta. Hondakinak ez ziren bereak. Aurreko batean ere adierazi zuenez, hondakinak ez dira bereak, liskarretan dabilen bizilagun batenak baizik. Zabor-poltsak bota dizkiete terrazara.

Azalpena,

Utzitako hondakinak bereak ez zirela adierazten duen alegazioari dagokionez, Auzitegi honek interesdunari jakinarazten dio, jakin dezan, Udal Zerbitzuari txostena egitea eskatu ziola, eta txosten horretan, 2011ko otsailaren 11koa, arau-hauslea identifikatzen dela, XXX, eta utzitako hondakinetan arau-hausle gisa identifikatzen duten informazioa ematen duten argazkiak daudela.

Era berean, eta eragin horietarako, Auzitegiak ezarritako eskumenak dituela ohartarazten da...

Gizabideko zehapen bat jartzearen aurkako erreklamazioari dagokionez, Auzitegiak duen eskumena haren betearazte-prozeduraren aurka formulatzen den erreklamaziora mugatuko da, hau da, zehapen-prozedura osoa amaitu denean eta betearazte-prozedura hasten denean jo dezake interesdunak Auzitegi honetara.

Abiarazitako prozedura betearazlea zuzenbidearekin bat datorren ala ez ebazteko, jarraian aipatzen diren gertakariak eta ebazitako administrazio

egintzak kontuan hartu dira: 2010eko martxoaren 24an, zehapen-espeditentearen aurkako erreklamazioa aurkeztu zuten; 2010eko maiatzaren 26an, premiamendu-probidentzia ebatzi zen; 2010eko ekainaren 21ean, premiamendu-probidentziaren aurkako berraztertze errekurtsoa jarri zen; egiaztatu da zehapen-espeditentea berraztertze errekurtsoa ebatzi aurretik ebatzi zela premiamendu-probidentzia. Hori guztia kontuan hartuta, adierazi behar da prozedura betearazle honetan ez dela bete Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 138.3. artikulua xedatzen duena: *ebazpena betearazlea izango da administrazioaren bidea agortzen duenean*. Hau da, Udalak ezin du zehapen-espeditentea hori kobratzeko premiamendu-probidentzia ebatzi, aurretik ez badio interesdunari 2010eko martxoaren 24an isunaren aurka aurkeztu zuen errekurtsoaren ebazpenaren berri eman.

Zehapen-erabakia ez da eraginkorra izango administrazio bidea agortzen duen ebazpena ebatzi arte. Une horretan, isunak preskribitu ez badu, premiamendu-

probidentzia ebatzi ahal izango da. Ondorioz, premiamendu-probidentzia deuseztatu behar da, eta prozedura zehapen-espeditentera atzeratu.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakariak kontuan izanik, eta azaldutako xedapenen arabera, erreklamazioa baietsi egin behar da, eta zehapen-espeditentearen bide administratiboaren bidea agortuko duen udal-ebazpenera atzeratu.

- **1292-2011 epaitza**, 60 €-ko zehapenaren premiamendu-probidentzia berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa **baiesten duena**.

Alegazioa,

Defentsa-gabezia alegatu du, betearazteko prozedura abiarazi aurretik zehapen-espeditentea ebazteko izapidegabeziatik. Errekurtsoa jartzeko eta isuna borondatezko epearen barruan ordaintzeko eskubidea ukatu zaiola uste du; Udalak ez du bere helbidea ezagutzen, eta hortaz, jakinarazpenak beste helbide batera bidaltzea akats bat dela; duela bederatzi urte utzi zion taberna gobernatzeari, eta orain taberna XXX-k dauka errentan.

Azalpena,



Erreklamazio hau aztertzeke igorritako espedientea aztertu da, eta egiaztatu da premiamenduaren xede den zorra eragin zuen 2010eko ekainaren 22ko arau-hausteagatik Udaltzaingoak jarritako salaketan XXX agertzen dela kafetegiaren arduradun gisa. Zehapen-espedientea 2010eko martxoaren 24an abiarazi zen,

XXX-ren izenean, arestian aipatutako jardueraren arduraduntzat jo zelako. Udalaren zergen datu-basean XXX lokalaren jabe gisa agertzen da. Donostiako Udalak XXX-ri eman zion kafetegi-lizentzia, eta bajan eman zion, XXX-ren izenean, txokolateria-jarduera arautzeko.

Zaborrak biltzeko udal zerbitzuaren erabiltzaile zuzena lokala erabiltzen duena da; udal-artxiboetan jasota dago XXX dela udal arautegia hautsi zuen lokalean gauzatzen den jardueraren arduraduna eta erabiltzailea. Horrenbestez, aurkatutako premiamendu-probidentziaren xede den 60 €-ko likidazioa deuseztatu behar da, eta prozedura betearazlea berraztertzeke errekurtsioa ezeztatzearen aurka aurkeztutako alegazioak onartu.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakariak kontuan izanik, eta azaldutako xedapenen arabera, erreklamazioa baietsi egin behar da.

### **Telefonia mugikorreko enpresek jabari publikoa okupatzeagatiko tasa**

- **236-2011, 243-2011, 305-2011, 370-2011, 387-2011, 438-2011, 671-2011 epaitzak**, hainbat telefonia mugikorreko enpresen likidazioak berraztertzeke errekurtsioak ezeztearen aurka jarritako erreklamazioak **ezezten dituztenak**.

Alegazioa,

Telefonia mugikorreko zerbitzuak tasa berezitik salbuesteari (Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 24.1.C. artikulua), eta tasa horren eta 11/1989 Foru Arauaren araubide orokorraren arteko bateraezintasunari dagokionez (24.1.A. artikulua), Madrilgo Auzitegi Gorenaren 2009ko otsailaren 10eko epaitza aipatu da.

Tasaren kuantifikazioari buruz: Zerga-ordenantzan erabiltzen den metodoa neurrigabea da; kableatuaren ustiapena ez da horren bizia. Ez dira aipatzen kuantifikazioa egiteko erabilitako irizpideak; oinarrizko tarifaren azken balioa soilik aipatzen da, eta ez hori kalkulatzeko erabilitako sistema. Hortaz, ezin da alegaziorik egin. Sare finkoko linearen metro kopurua ezin da parametrotzat hartu, are gutxiago irizpide nagusitzat, kableatu hori ez baita telefonia

mugikorreko zerbitzua emateko erabiltzen. Izan ere, telefonia mugikorrek Estatuko espazio erradioelektrikoa erabiltzen du, eta enpresak horregatik tasa ordaintzen du jada. EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiaren 2009ko martxoaren 2ko epaitza aipatu du.

2002/20/EE Zuzentaraua aplikatzerakoan tasaren legezko estaldura ezari, eta Telekomunikazioei buruzko 32/2003 Legea buruz: egia da Auzitegi Nagusiak horri buruzko ebazpena eman zuela, 2007ko uztailaren 16an, legearen intereseko errekurtsio bidez, baina aipatutako Zuzentarauak erkidegoko izaera du, eta hortaz, lege maila altuagoa du. Hortaz, eta Erkidegoko Zuzenbideari lehentasuna emateko printzipioari jarraiki, Zuzentarauak Espainiako araua baztertu egin beharko luke. Auzitegi Nagusiak hainbat auto ebatzi ditu kasazio-errekurtsio ezberdinetan, non Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiari epaiketa aurreko arazoak planteatu dizkion.

Azalpena,

Telefonia mugikorreko zerbitzuak tasa berezitik salbuesteko (Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 24.1.C. artikulua) alegazioari, eta tasa horren eta Foru Arauaren araubide orokorreko 24.1.A artikulua arteko bateraezintasunari dagokionez, telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeari dagozkion tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren kopia bat dago erreklamazioaren espedientean. Donostiako Udalak zerga-ordenantza hori onartua du, eta indarrean dago 2010etik, aurkatutako zergen likidazioak kargatu ziren urtean. Tasa horren legezko estaldura Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 24.1.C artikuluan jasota dago. Artikulu hori eta Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 24.1.c. artikulua oso antzekoak dira. Honako hau dio bigarrenak:

*24.1.C. artikulua: ...telefonia mugikorreko zerbitzuak ez dira tasa kuantifikatzeko erregimen berezi honetan sartuko. Kuantifikaziorako erregimen berezi hau aplikagarria izango zaie c) letra honetan aipatzen diren enpresei bai hornidurak egiteko erabiltzen diren sareen titularrak direnean, eta bai, horien titularrak ez izanik ere, sareak erabili, horietan sartu edo haiekin interkonektatzeko eskubideen jabe direnean.*

Aurkatutako likidazioak legezko estaldura horretan oinarritu dira, eta baita telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeari dagozkion tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren 2. artikuluan ere. Artikulu horren arabera, *tasa horien egitate zergagarria da: telefonia mugikorreko zerbitzuak emateko udal jabari publikoko lurzorua, zorupea edo hegalak era pribatiboan erabiltzea eta bereziki ustiatzea. Joko da erabilera pribatiboa eta ustiapen berezia hasiko dela zerbitzua eskatzen duten pertsonen ematen hasten den unean. Jabari publikoaren ustiapen*

*berezia dela esango da, zerbitzua emateko antenak, instalazioak edo sareak jartzen badira, halakoak udalaren bide publikoetako zoruan, zorupean edo hegaletan jartzen direnean. Ez da kontuan izango nor den bide publikoen titularra.*

Egiaztatu da errespetatu egin dela horrelako zergak enpresen sarrerren % 1,5aren arabera kuantifikatzeko legezko debekua, eta zerga-ordenantzak beste parametro bat arautzen duela tasa hori kuantifikatzeko.

Toki Administrazioak eskumena du telekomunikazioetako zerbitzuak ematen dituzten enpresei jabaria era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeari dagozkion tasa likidatzeko, "tasa bereziaren" modalitatean. Auzitegi Nagusiak horrela ebatzi zuen 2007ko ekainaren 16ko ebazpenean, non "Legezko Doktrina" hau eman zuen: *telekomunikazioetako zerbitzuak ematen dituzten enpresei lurzoria, zorupea edo hegalak era pribatiboan erabiltzeari eta bereziki ustiatzeari dagozkion tasa 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Testu Bateginaren 24.1.c artikuluan ezarrita dago. Artikulu horretan salbuespen bat aurreikusten da hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei dagokienez, eta horren arabera, telefonia mugikorreko zerbitzuak ez dira tasa kuantifikatzeko erregimen berezi honetan sartuko.* Hau da, Auzitegi Nagusiak telefonia mugikorreko enpresei tasa berezia aplikatzearen inguruan salbuesten duen bakarra "sarrerren % 1,5aren gainean kuantifikatzea" da, 11/1989 Foru Arauaren eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Testu Bateginaren Toki 24.1.c artikuluetan xedatzen den bezalaxe.

Aurkatutako likidazioak 11/1989 Foru Arauaren 24.1.C artikulua xedatzen duen tasa bereziaren zerga-kargaren mende jarri dira. Egiaztatu da Udalak ez duela 11/1989 Foru Arauaren 24.1.A artikulua xedatzen duen tasa orokorraren zerga-karga aplikatu enpresa honen likidazioa aplikatzerakoan.

Kableatuaren ustiapenari buruz, eta aurkatutako likidazioa kuantifikatzeko modua ulertezina eta neurrigabea dela adierazten duen alegazioari dagokionez, tasen zenbatekoa zehazteko erabili beharreko parametroak arautzen dituen zerga-ordenantzaren 6. artikulua honako hau dio:  
*Urteko oinarrizko tarifa, erabilera pribatiboaren edo ustiapen bereziaren iraupena, eta operadore bakoitzari ezar dakioken koefiziente espezifikoa, merkatuan duen kuotaren arabera.*

Oinarrizko tarifa Eranskinean arautzeari dagokionez, egokitzen jotzen da zerga-ordenantza honen eta Udaleko gainontzeko zerga-ordenantzen egitura; alde batetik, oinarrizko eskakizun guztiak (horien artean kuota ezartzeko parametroak) arautzen dituen testu arautzailea, eta bestetik, Eranskina, zerga edo kuotak zehazteko.

Erreklamazio egileak alegatu du ez direla kuantifikatzeko irizpenak zehaztu, Eranskin baten erreferentzia soilik eman dela, eta ez dela zerga kalkulatzeko

erabilitako sistema adierazi. Egiatzatu da 2010ean aipatutako zerga-ordenantza onartu zeneko jatorrizko espedientean "Donostiako Udala- jabari publikoa okupatzeari buruzko txostena" izeneko txosten bat dagoela. Txosten horretan, honako datu hauek jasotzen dira: telefoniaren jabari publikoari buruzkoak; Donostiako katastro-balioei buruzkoak; tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-balioari buruzkoak; tasa dela-eta aurreikusitako diru-sarrerei buruzkoak. Horren harira, Donostiako Udaleko zuzendari juridikoak zerga-ordenantza onartzeko ezinbestekoa den txosten bat jaulki zuen 2009ko urriaren 13an, eta txosten horretan honako hau esaten da: *2010eko zerga-ordenantza onartzeko proposamenak betetzen du ezarritako oinarrizko zehaztapenak jasoko dituen txosten tekniko-ekonomikoa igortzeko xedapena. Edonola, eta ikuspuntu tekniko batetik, jakinarazi behar da hainbat arlo hobetu daitezkeela.* Ondoren, 2009ko urriaren 19an, txosten berri bat gehitu zitzaion espedienteari: "Jabari publikoko ondasunen merkatu-balioei buruzko txosten ekonomikoa". Txosten horretan zerga hau kargatzeko parametroak zehazten dira, eta jabari publikoari buruzko beste zerga-ordenantzakoekin eta Badalonako zerga-ordenantzarekin alderatzen dira.

Erreklamazio egilea ez dago ados zerga kargatzeko sare finkoko linearen metro kopurua erabiltzarekin, eta zentzu horretan, adierazi du telefonia mugikorrek zerbitzuak emateko, gehien bat, espazio erradioelektrikoa erabiltzen dutela, eta zerbitzu horren seinale digitalak egunero erabiltzen diren eta zergarik ordaintzen ez duten beste zerbitzuen antzekoak direla (posta elektronikoa). Zerga kargatzeko parametroa objektibotzat jotzen da, eta egitate zergagarriarekin lotura zuzena duela. Hortaz, arautu diren beste parametroak bezain balioduna dela ebatzi behar da.

Likidazioa kalkulatzeko moduari buruzko txostena eskatu zitzaion Finantza zuzendaritzari, eta 2011ko otsailaren 21ean, *koefiziente espezifikokoaren datua* jakitera eman zuen Zerga Kudeaketako buruak.

Interesdunak alegatu du 2002/20/EE Zuzentaraua aplikatzerakoan ez dagoela legezko estaldurarik, eta hori arrazoitzeko esan du tratatuak eta erregelamenduak beti direla aplikagarriak. Horri dagokionez, eta Itunaren 189. artikuluari jarraiki, Erkidegoko Zuzentarauak erkidegoko kide diren Estatuetan nahitaez aplikatzekoak dira "ezarritako helburua lortzeko; helburu hori lortzeko modua eta baliabideak ezartzea, berriz, Estatu bakoitzari dagokio". Kasu honetan, Estatu Espainiarrak Telekomunikazioei buruzko 32/2003 Lege orokorra ezarri zuen 2002/220/EE Zuzentaraua garatzeko, hortaz, ezin da inola ere onartu aipatutako Zuzentarauari heltzeko alegazioa, Zuzentarau horrek ezartzen duena 32/2003 legearen bitartez aplikatzen delako. Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiak Zuzentaruaren eragin zuzena onartua du, haien "eragin erabilgarriari" dagokionez, eta horrenbestez administratuari Zuzentarau horiek alegatzeko eskubidea aitortzen dio, baita nazio mailako jurisdikzioetan kontuan hartzekoa ere, betiere Erkidegoko kide den Estatuak zuzentarauak garatu ez baditu (Justizia Auzitegiaren epaitza, 1977ko otsailaren

leko, 51/76 gaiak). Horrenbestez, eta Zuzentaraua 322/20203 legean jasota dagoenez, ezin da alegazio hori onartu. Telekomunikazioen 32/2003 Lege Orokorra Zuzentarauak agintzen duenarekin bat datorren ala ez argitzea ez dagokio Auzitegi honi.

Bestetik, alegazio hori Auzitegi Nagusiaren 2007ko ekainaren 16ko epaitzan ebatzita dago: *...Toki Ogasunei buruzko Legea oinarrizko araudia da, eta ez dio kalterik egiten Telekomunikazioetako Lege Orokorri, eskumen-esparru ezberdinetan aritzen direlako.*

Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiari epaiketa aurreko arazoa aurkezteko proposamenari dagokionez, ez da bidezkoztat jo hura eteteko eskaera onartzea, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkeztu beharko da.

Tasa arautzeko orduan diskriminazio eza eta kohesio ekonomikoaren printzipioak kontuan hartu behar direla dioen alegazioari buruz, aurkatutako Telefónica Móviles España SAU enpresaren likidazioaren zenbatekoak ez ditu hausten berdintasun-printzipioak edota sektorea garatzeko sustapen-printzipioak. Bestetik, ez dagokio Donostiako Auzitegi Ekonomiko Administratiboari zerga-ordenantza Erkidegoko Zuzenbidearen aurkakoa dela dioen alegazioa aztertzea.

Horrenbestez, egiaztatutako eta jasotako gertakarien arabera, eta aditzera emandako xedapenei jarraituz, erreklamazioa ezetsi egin behar da.

### **3º. ALDE PERTSONALAK ETA LAN KARGA**

Auzitegiko kideak Udaletik kanpokoak eta independenteak dira: Javier Herrero Aparicio, auzitegiko buru; eta Sofia Arana Landin eta Juan Santos Lopez Anton, auzitegiko kide soil. Beraz, argi dago auzitegiak funtzionamendu independentea duela.



Auzitegiko idazkaritzari atxikitako langile funtzionarioak direla eta, Finantza Zuzendaritzako Zerbitzu Juridikoan lan egiten duten funtzionario hauek dira: administrari bat, lanaldi osoan, monitorizatutako espedienteen arduraduna, lanaldi erdian, eta Zerbitzu Juridikoko burua (auzitegiko idazkaria).

Bilerak berdinean egiten dira, hamabostean behin.

Auzitegiaren lan-karga auzitegiko idazkaritzak darama. Urte hauetako guztietako maila bertsuan dirau lanak. Izan ere, lan propioak ez ezik (erreklamazioak

izapidetzea, adibidez), epaitza guztiak idatzi ere egiten dira, baita zerga-ordenantzak aldatzeko proiektuei buruzko txostenak ere.

Donostiako erreklamazio ekonomiko administratiboak ebazteko araudiaren 36. artikulua sei hilabeteko gehieneko epea finkatu du erreklamazioak ebazteko, eta indarrean dagoen Zergen Foru Arau Orokorrak prozedura horretarako gehienez urtebeteko epea ezarri du.



#### **4º. ALDE MATERIALAK ETA INFORMATIKOAK**

Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren egoitzak Udaletxean jarraitzen du, eta bertan egiten dira hamabostean behingo bilerak. Auzitegiko kideek ordenagailutik eskura ditzakete zirkulazioko zehapenen erreklamazioen espediente osoak. Izan ere, zirkulazioko zehapenen espedienteak osorik digitalizatuak daude.

Aurka egiteko bide hau erabili nahi dutenek paperean aurkeztu behar dituzte erreklamazioak, arautegiko 26.3 artikuluan zehazturikoari jarraituz; halaxe izango da, harik eta informatikako eta informazioko baliabide egokiak garatzen diren arte (erreklamazio ekonomiko administratiboak bide telematikoz aurkezteari buruz Zergen Lege Orokorra garatzeko emandako EHA/2784/2009 Aginduari men eginez). Ordura arte, erreklamazioak paperean aurkezteko prozedura mantenduko da, arautegiko 26.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Isun Zerbitzuak egingo ditu espedienteak.

Auzitegiari buruz udal-webgunean ageri den informazioaz den bezainbatean, dagoeneko ageri dira erreklamazioak egiteko jarraibideak, erreklamazioetan aplikatu beharreko arautegia, eta urtez urteko oroitidazkiak.

#### **5º. AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.a) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1. artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio «*udal*

*eskumenekoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarreraren kudeaketa, kitapen, bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea».*

Administrazioarekiko diru-erreklamazio horien garrantzia, honetan datza: interesatuek gero bide judizialera iristeko behar duten tresna dela.

2011n, Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, ondoren zehaztuko ditugun erreklamazio hauek sartu dira. Kopuruaren, erreklamaturako kontzeptuen eta aurkezte-dataren arabera sailkatu ditugu.

<b>2011n aurkeztutako erreklamazioak</b>	
Zergak	38
Zehapenetako bilketa	928
<b>Guztira</b>	<b>966</b>

<b>Zergak</b>	
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	3
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	1
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	4
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	6
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	5
Jabetza-Tasa	8
Zerbitzu-Tasa	10
Baimenen Tasa	1
<b>Guztira</b>	<b>38</b>



<b>Zehapenetako bilketa</b>	
Zirkulazioko zehapenak	922
Ingurumeneko zehapenak	1
Gizabideko zehapenak	2
Hirigintzako zehapenak	3
<b>Guztira</b>	<b>928</b>

## 6°. EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK


Alde horretatik, zergen arloko erreklamazioak ebaztearen azterketa espezifikoa, auzitegiak eutsi egiten dio sortu zenetik —2005eko ekainetik— izandako irizpideari, hots, zerga-egitatei buruz eta zirkulazioko zehapenak biltzeko prozedurari ez dagokion eskubide publikoko edozein diru-sarrerari buruz eginiko erreklamazioak berehala ebazteko irizpideari.

Erreklamazio horiek berehala ebazten dira; eta zirkulazioko zehapenetako nahitaezko diru-bilketako prozedurei dagozkienak, iritsitako ordenari jarraituz izapidetzen dira, ordena hori baita legez errespetatu beharrekoa, prozedura horiek ebazteko orduan.

Zerga-gaietako erantzunaren berehalakotasun hori egiaztatu da. Hartara, 2011. urtean 38 zerga-erreklamazio aurkeztu ziren eta horiei buruz 38 epaitza eman ziren; 2 epaitza, ebazteke geratutako aurreko urteko erreklamazioenak ziren. Abenduaren 31n 2 erreklamazio geratu ziren ebazteke, hil horren amaieran aurkeztu zirenak alegia.

Eta estatistika egitean auzitegiak dituen sei urte eta erdiko aldi osoaren ikuspegia hartzen badugu, aurkeztutako 5.736 erreklamazioetatik, 2011ko abenduaren 31n, aurkeztutako erreklamazioen % 83,94 zegoen ebatzita.

921 erreklamazio zeuden ebazteke, hau da, aurkeztutako erreklamazioen %16,06.



Grafiko horretatik ondorioztatzen da Auzitegiaren lana beti izapidetze- eta ebazte-erritmo bertsuan egin dela.

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari kontu eskatutako Auzitegiaren epaitzekiko gatazkei dagokienez, honako datu hauek eman dira:

Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetan ebatzitakoak

**2005-2011**

Epaitza baiesleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren era baliogabetzen dutenak)	5
Epaitza ezlesleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren era berresten dutenak)	
Atzera eginak	3
Auziak prozesutik kanpo betetzea	3
Ebazteke direnak	9


## 7º. EBAZTEKE DIREN ERREKLAMAZIOAK

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, 2.213 erreklamazio ziren ebaztekoak. Haietatik 1.247 ziren 2010. urtetik ebazteke zeuden erreklamazioak, eta 966 ziren 2011n aurkeztutako erreklamazioak.

Erreklamazio horietatik, 1.292 erreklamazio ebatzi dira 2011n, eta 2011ko abenduaren 31n, 921 erreklamazio daude erreklamatzeko.

Guztizko 921 erreklamazio horietatik, 618 espediente zeuden Isun Zerbitzuak izapidetzeke (kudeaketa-organo horrek bidaltzen du espediente osoa auzitegira), eta 303 espediente zeuden izapidetuta eta auzitegiko idazkaritzari entregatuta, analizatzeko eta hartu beharreko ebazpena idazteko.

Auzitegia eratu zenetik 2011ko abenduaren 31 arte egindako lanaren zenbaketa osoa hartuta, denbora horretan aurkeztutako 5.736 erreklamazioetatik, 4.815 espediente ebatzi dira, hau da, erreklamazioen % 83,94k badu epaitza.




## 8º. EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN

Grafiko hauetan ageri da emandako epaitzak zein aldetarantz izan diren: baietsiak, zati batean baietsiak, ezetsiak eta onartezinak. Multzo horietako bakoitzaren kopurua zehaztu da, urte bakoitzean.


<b>Zerga arloko epaitzak zein aldetarantz eman diren</b>				
	Baiestea	Zati bat baiestea	Ezestea	Guztira
<b>Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga</b>	-	-	3	3
<b>Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga</b>	3	-	1	4
<b>Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga</b>	3	-	2	5
<b>Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga</b>	1	-	4	5
<b>Jabari publikoa</b>		1	9	10
<b>Zerbitzu Tasak</b>	5	-	5	10
<b>Baimenen Tasak</b>	1	-	-	1
<b>Guztira</b>	<b>13</b>	<b>1</b>	<b>24</b>	<b>38</b>

<b>Zehapenak kobratzeari dagozkion epaitzak zein aldetarantz eman diren</b>			
	<b>Premiamendua</b>	<b>Bahitura</b>	<b>Guztira</b>
Baiestea	140	28	168
Zati bat baiestea	13	4	17
Ezestea	842	209	1051
Onartezina	13	5	18
<b>Guztira</b>	<b>1008</b>	<b>246</b>	<b>1254</b>


Zirkulazioko zehapenen nahitaezko diru-bilketako prozedurako erreklamazioetan, ezestekoak dira erreklamazio gehienetako epaitzak.




Hurrengo grafikoetan, urte horietako epaitzen noranzkoen arteko aldeak bistaritzen dira.




### 2009ko EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN



### 2010eko EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN





## 9º. AUZITEGIAREN IRIZPIDEAK

Xede berarekin aurkeztutako erreklamazioak ebaztean, auzitegiak, aurreko ebazpenetan adierazitako irizpideei lotzearen Konstituzio doktrinari jarraituz, ratio decidendi berbera erabili du, zuzenbideko oinarrietan zehaztuta. Eta zuzenbideko oinarri horiek erabiltzen jarraitzeko asmoa du, oraingoz, aurkezten zaizkion kasuetan egitateen edo zuzenbidearen funtsezko aldaketarik izan ezean; izan ere, zuzenbideko oinarri horiek zuzenbidearen araberakoak direla baiteritzogu.

## **10º. AURKEZTUTAKO GATAZKEI BURUZKO IRUZKINAK**

Auzitegi honetan aurkezten diren gatazkak, ez dira aurkezten interesdunek erabaki dutelako bide hori hartzea, berraztertze errekurtoarekin Udalarengana jo beharrean; hala balitz, berraztertze errekurtoak ebatzen dituzten udal-organoen erabakiak ordeztu dituen organo bihurtuko litzateke auzitegi hau. Baina ez da hala, zeren eta udal-administrazioarekiko diru erreklamazio guztiguztiak berraztertze errekurtoa ezetsi delarik egiten dira, direla zehapenak betearazteko prozedurenak, edo direla udal-zergenak.


Lan-kargak handia izaten jarraitzen du, izapidetzen diren zehapenak betearazteko prozeduretan.

Grafikoetatik ondorioztatzen da, zerga-erreklamazioetako gatazkei dagokienez, erreklamazioak udal-zerga guztiei buruzkoak izan direla: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga; Eraikinen gaineko Zerga; Ibilgailuen gaineko Zerga; Uraren Tasa, Zaborrak Biltzeagatik Tasa, Jabaria aldamiokekin okupatzeagatik Tasa; eta Garabi Tasa.

Emandako epaitzen diru-ondorioek, urte hauetan guztietan, erreklamaturako zenbatekoen ezeste-maila bertsuan dira. Hala ere, kopuru hori handiagoa da 2008. eta 2009. urteetan. Izan ere, udal-interesa lortu nahi duten entitateen Eraikinen gaineko Zergako % 95eko hobarien eskarrietan ezetsitako zenbateko ekonomikoak oso handiak ziren.



	<b>2008ko epaitzak</b>	<b>2009ko epaitzak</b>	<b>2010eko epaitzak</b>	<b>2011ko epaitzak</b>
<b>Erreklamatuak</b>	1.813.648,55 €	1.075.752,44 €	282.123,36 €	794.684,33
<b>Baietsiak</b>	87.257,49 €	143.556,35 €	58.098,10 €	67.088,39



## 11°. UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

Ondorengo informazioa eta ondorioak urtez urte egiten ditu Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek, “*Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales*” izenburuko txostenean.

*Ebazte-Tasak* adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebatzen diren, urtero, aurkeztu diren erreklamazioen aldean (urteko ebatziak / urteko sartuak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du sartutakoak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, sartutakoak baino gutxiago.

*Eraginkortasun-Tasak* adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebatzen diren, erreklamazio guztien aldean (urteko ebatziak / urteko guztiak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du urteko erreklamazio guztiak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, erreklamazio guztiak baino gutxiago.

*Ebazteke dagoenaren Tasak* neurtzen du zenbat urte beharko liratekeen urte bukaeran ebazteke diren espedienteak ebazteko (abenduaren 31n ebazteke diren espedienteak / urteko ebatziak).

*Ebazte-abiadurak* neurtzen du zenbat urte behar diren espediente bat ebazteko (urteko guztiak / urteko ebatziak).

## **DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO ERREKLAMAZIOAK**

	<b>ERREKLAMAZIOAK</b>	<b>2011</b>	<b>2010</b>	<b>2009</b>	<b>2008</b>
1	Urtarrilaren 1ean ebazteke	1.247	1.011	480	390
2	Urtean aurkeztuak	966	1.166	1.161	636
3	Urteko guztizkoa (1+2)	2.213	2.177	1.641	1.026
4	Urtean ebatziak	1.292	930	630	546
5	Abenduaren 31n ebazteke (3 -4)	921	1.247	1.011	480

## DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ANALISIA

Urtea	Ebazpena	Eraginkort.	Ebazteke dagoenaren Tasa	Abiadura
2008	85,85	53,22	0,88	1,88
2009	54,26	38,39	1,60	2,60
2010	79,76	42,72	1,34	2,34
2011	133,75	58,38	0,71	1,71

### 2010eko ZIFRAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

2010	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Ebazte-abiadura
<b>Sevilla</b>	38,78	30,85	2,24	3,24
<b>Madril</b>	60,06	52,04	0,92	1,92
<b>Malaga</b>	83,99	62,76	0,59	1,59
<b>Donostia</b>	79,76	42,72	1,34	2,34
<b>Valentzia</b>	91,14	58,86	0,70	1,70
<b>Bartzelona</b>	71,32	63,92	0,56	1,56
<b>Las Palmas</b>	130,12	68,12	0,47	1,47
<b>Bilbo</b>	215,65	80,64	0,24	1,24

Mila biztanleko urtean aurkeztutako erreklamazioen kopurua konparatzen da, dagokion urteko urtarrilaren leian udal bakoitzak duen biztanle kopurua hartuta, Espainiako Estatistika Erakundeak argitaratutako datuekin.

**AZTERKETA KONPARATUA:  
erreklamazioak, 1.000 biztanleko**

	<b>2010</b>	<b>2009</b>	<b>2008</b>
	<b>Erreklam./mila biztanle</b>	<b>Erreklam./mila biztanle</b>	<b>Erreklam./mila biztanle</b>
<b>Sevilla</b>	5,93	1,86	0,72
<b>Madril</b>	23,88	6,90	3,89
<b>Malaga</b>	1,07	1,15	1,15
<b>Donostia</b>	6,29	6,26	3,45
<b>Valentzia</b>	0,57	0,45	0,74
<b>Bartzelona</b>	0,23	0,09	0,18
<b>Las Palmas</b>	0,65	0,68	0,84
<b>Bilbo</b>	5,27	7,95	6,24

**12°. ESKATUTAKO IRIZPENAK**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.b) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1.1 artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio zerga-ordenantzen proiektuei buruz irizpenak ematea.

2010eko irailaren 30ean, ogasuneko zinegotzi ordezkariak zerga-ordenantzen proiektuei buruzko irizpena eskatu zion Auzitegiari, betiere 2012rako zerga-ordenantzen aldaketarekin.

Proposamenek zergapetze-Tasa aldatzea edo zerga-kuotak aldatzea dakarte, 2012ko ekitaldirako zerrendatzen diren zerga hauek direla eta:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Eraikinen gaineko Zerga, Zaborrak Biltzeagatik Tasak, Ur-horniduragatik Tasak, Udal Jabari Publikoa Erabiltzeagatik Tasak, telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatik Tasak, Bide Publikotik Ibilgailuak Kentzeagatik Tasak, Bide Publikoetan Ibilgailuak Aparkatzeagatik Tasak, Zerbitzuak emateagatik Tasak, Hirigintzako Lizentziak eta Zerbitzuak emateagatik Tasak, Irekiera Lizentziak emateagatik Tasak, Kaleen Sailkapena horien Kategoriaren arabera.

Auzitegiak, 2011ko urriaren 4an egindako bileran, eskatutako irizpenak eman zituen. Proposamenen aldeko irizpenak izan ziren.

### **13º. ONDORIOAK**

Azterketa honetatik nabari da auzitegi honek jarraitzen duela auzitegia ezartzearekin lortu nahi zen helburua betetzen: herritarren zerbitzura diharduen doako tresna izatea, zuzenbideko profesionalek esku hartzea eskatzen ez duena; eta Udalarentzako hobekuntza elementu bat izatea, eguneroko kudeaketa egitean ihes egiten dioten okerreari antzemanaz.

2011n eginiko estatistiketan, bere horretan dirau datu honek: gatazka gai masibo izaten jarraitzen dute zirkulazioko zehapenekin eginiko betearazte-prozeduren erreklamazioek. Bestetik, Gizabideari buruzko Ordenantzako zehapenen aurkako erreklamazioak hasi dira.

Oraindik ere informatikako dema dugu, auzitegiko idazkaritzarako, prozeduraren izapideak informatizatzea, Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari buruzko Araudia eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua (2007ko

ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoz erabiltzearena) onartu zirela eta.

Informatizatzea lortuz gero, hurrengo aldira iritsiko ginateke: interesadunek baliabide informatikoak erabili ahal izango lituzkete, erreklamazioak aurkezteko, eta auzitegiko idazkaritzak sistema horren bidez jakinarazi ahal izango lituzke izapide, ebazpen eta epaitzak.

Donostia, 2012ko apirilaren 19a.

Auzitegiko idazkaria

Auzitegiko lehendakaria

Sin.: Maite Amunarriz Yeregui.

Sin.: Javier Herrero Aparicio.